



Euskal Herriko Pertsona Gorren Familien
Elkarteen Federakundea

**ENTZUTEKO DESGAITASUNA
ETA IRISGARRITASUNA**



Euskal Herriko Pertsona Gorren Familien
Elkarteen Federakundea

ENTZUTEKO DESGAITASUNA
ETA IRISGARRITASUNA

AURKIBIDEA



1

ERAKUNDEA

FEVAPAS izenaren pean, entzuteko desgaitasuna zuten familia eta pertsonen elkartearen batasuna eratu zen 1994an: Arabako ASPASOR, Bizkaiko ULERTUZ, eta Gipuzkoako AransGi, guztiak ere irabazi asmorik gabekoak.

2

DESGAITASUNA

• Entzuteko desgaitasuna 10

Horietan guztietan, gorrieriak gizabanakoaren nortasun orokorrean eragiten du, eta haren gai eta alderdi garrantzitsuei eragingo die, adibidez, komunikazioa, hizkuntza, ingurunearen ezagutza, jendarteratzea, prozesu kognitiboak eta memoriaren funtzionamendua.

3

IRISGARRITASUNA

• Entzuteko desgaitasuna duten pertsonentzako inguruneke irisgarritasuna 17

ARARTEKOAK, bere "EAEko ospitaleek ezgaituentzat duten irisgarritasunaren diagnostikoa"n (2017), honela definitzen du IRISGARRITASUNA: "Edozein pertsonak gainerako pertsonen antzeko baldintzetan edo baldintza berberetan eraikinak, zerbitzuak edo produktuak izateko eta erabiltzeko duen ahalmena da. Gainera, erabilera autonomoa bermatu behar da".

4

ARLOAK

- Politika instituzionalak 23
- Hezkuntza 24
- Osasuna / osakidetza 26
- Enplegua / prestakuntza 29
- Gizarte-zerbitzuak 30
- Justizia 31
- Etxebizitza 31
- Garraioa 32
- Kultura 33
- Turismoa eta aisialdia 34
- Eraikin publiko eta pribatuak 35
- Beste batzuk 37

5

LEGEDIA

Pertsona Desgaituen Eskubideei buruzko KONBENTZIOA
EUROPAKO ERKIDEGOA
ERATZEKO TRATATUKO 13.
ARTIKULUA
ESPAINIAKO KONSTITUZIOA
EAEko autonomia-estatutua
12/2008 LEGEA, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa (EAE)
...

ERAKUNDEA

FEVAPAS izenaren pean, entzuteko desgaitasuna zuten familia eta pertsonen elkarteen batasuna eratu zen 1994an: Arabako ASPASOR, Bizkaiko ULERTUZ, eta Gipuzkoako AransGi, guztiak ere irabazi asmorik gabekoak.

1.-Fevapas ondorengo printzipioen bidez arautzen da: 7/2007 Legea, Euskadiko Elkaritei buruzkoa; 1/2002 Lege Organikoa, Elkartzeko Eskubidea; bere Estatutuak; bere organoek Gobernuarekin balioz egindako hitzarmenak; eta Eusko Jaurlaritzak onartutako erregelamenduetako xedapenak.

2.-Egitura: Bere organoak ondorengoak dira: **batzar nagusia Elkarite Federatuetako bosna ordezkari osatua, eta zuzendaritza-batzordea, elkarite federatuetako hiru ordezkari osatua, Presidente, Presidenteorde, Idazkari, Diruzain karguak elkarite bakoitzeko ordezkari banak osatuz.**

3.- Federazioaren misioa eta helburu lehena da entzuteko desgaitasuna duten pertsonen beharrianetarako, gizarte barneko eskubide osoko herritar gisa, soluzio egokiak lortzea. Helburu orokor hori ondorengo puntuetan zehazten da, besteak beste:

- Administrazio publikoen eta Federazioaren helburu nagusiari lotutako eskumenak dituen beste edozein erakunde pribatu eta publikoren aurrean, balio izatea eske, ordezkaritza eta ekimen bideetarako.
- Federatutako elkarteen arteko informazioaren, bitarteko eta tresna zientifikoaren, juridikoen, materialen eta bestelakoen elkartrukea koordinatzea, elkarite horien helburuak betetzeko egokiak diren neurrian.
- Gorreria tratatzeko aurrerapen zientifiko, kliniko eta teknikoen berri aldizkako edo bestelako jakinarazpen edo argitalpenen bidez zabaltzea.

- Errehabilitazio, suspertze eta integrazioarako balio duten zentroak sustatu eta sortzea, edo dagoeneko badituzten beste zentroekin Federatutako Elkaritei zerbitzu horiek emateko itunak sinatzea.

- Elkarite federatuen ekintzak koordinatzea, plan eta helburu komunak adieraziz, ahaleginak sakabanatuta geratzea eragotziz eta gorren arloko ekintza bateratua lortzen saiatuz.

- Lanbide-heziketako eta laneratzeko uneko aukerak sustatu eta bultzatzea, eta pertsona gorren arlo horretako egoera hobetuko dituzten beste aukera batzuei bultzada ematea.

FEDERAZIOAREN MISIOA ETA HELBURU LEHENA DA ENTZUTEKO DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN BEHARRIZANETARAKO, GIZARTE BARNEKO ESKUBIDE OSOKO HERRITAR GISA, SOLUZIO EGOKIAK LORTZEA.

PERTSONA GORREN EDO ENTZUTEKO DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN GIZARTE INKLUSIOA ETA KOMUNIKATZEKO OZTOPOAK. SARRERA EDO GAIAREN EGOERA

Pertsona gorren komunikazio beharrianak, edo entzuteko desgaitasuna duten pertsonenak, komunikazioaren oinarritzko eskeman kokatzen dira: igorle bat, hartzaile bat, kanal edo bitarteko bat komunikazioa egiteko, eta mezu bat. Eskema horrek oinarritzko propietate bat du: noranzko bikoia da. Une batean igorlea igorlea da, baina beste uneren batean, hartzaile bihurtzen da, eta alderantziz.

Beraz, komunikazioan mota horretako arazo bat dagoenean, ez da pertsona gorrei bakarrik eragiten dien zerbait. Aipatzen ditugun arloetan guztietan, entzuteko desgaitasuna duen pertsonak harremana duen arloek badute komunikazio-betebehar bat, dela hezkuntzan, dela osasunean, gizarte-zerbitzuetan, edo bestela; ezin bestean, giza edo teknika-bitartekoak hornitu behar dira, pertsona horiek, herritarrak diren aldetik, dituzten eskubideak erabiltzeko aukera izan ditzaten.

Demagun adibide bat: jar dezagun mugimendu-degaitasuna duen pertsona baten adibidea, anbulatoria joateko guztiz beharrezkoa duen egokitzapen arkitektonikoa, alegia, sartzeko arrapala. Nork egingo du egokitzapena? Pertsonak ekartzen du egokitzapena? Jakina ezetz. Inplikaturako erakundeak egin behar ditu beharrezko obrak guzti hori herritar guztientzat erabilerraza izan dadin, baita gorputz-degaitasuna duten pertsonentzat ere; hartara, beren osasun-eskubidea erabili ahal izango dute.

Gor dagoen pertsona batek eskubide hori erabili nahi duenean, ez du arazorik profesional sanitarioengana heltzeko; Internetez hitzordu bat eska dezake. Hala ere, arazoak izango ditu gertatzen zaionaren azalpena ematen, zer gertatzen zaion eta bere tratamendua zein izan daitekeen adierazten saiatzen direnean.

Aurrerantzean aipatuko ditugun arloetako batek ere ez du kontuan hartu komunikazio-oztopoak pertsona gorren edo entzuteko desgaitasuna duten pertsonen herritar-partaidetzarako lehenetsunezko elementu bat direnik, 1997an Euskadiko Irisgarritasuneko Legea argitaratu zenetik gaurdaino.

Bestetik, entzuteko desgaitasuna duten pertsonekin dagoen komunikazio-arazorako soluzioa **ez da izan behar bakarrik Gizarte Zerbitzuen Sailaren ardura bat**, gorria duten pertsonen beharizanen zati bati aurre egiteko profesionalak jartzeko diru kopuru bat emanez. **Zeharkakotasuna** ezin besteko elementu bat da *Komunikaziorako Oztopoak* direlakoetan. Komunikazio-zailtasunak ez dira Gizarte Zerbitzuei bakarrik eragiten dien zerbait. Gizabanakoaren garapen-arlo guztiei eragiten diote. Beraz, arlo guztiek izan behar dituzte herritar guztiei komunikazio-irisgarritasuna bermatzeko politikak.





DESGAITASUNA



DESGAITASUN-EGOERA
BATEAN, ZENBAIT
PERTSONAK GABEZIA
BAT DUTE, GORPUTZ EDO
BURUKOA, INTELEKTUALA
EDO ZENTZUMENETAKOA,
ETA HORREK MUGATU
EGITEN DITU GIZARTEAN
ELKARREKINTZAN ARITU ETA
ERAGINKORKI ZEIN OSOKI
PARTE HARTZEKO ORDUAN.

DESGAITASUNA

Desgaitasun-egoera batean, zenbait pertsonak gabezia bat dute, gorputz edo burukoa, intelektualak edo zentzumenetakoa, eta horrek mugatu egiten ditu gizartean elkarrekintzan aritu eta eraginkorki zein osoki parte hartzeko orduan.

Desgaitasuna aldatzen den kontzeptua da, eta gabeziak dituzten pertsonen eta jarrerak eta inguruneek eragindako oztopoen arteko elkarrekintzatik sortzen da, horrek eragozten baitu gizartean osoki eta eraginkortasunez besteekin baldintza-berdintasunean parte hartzea.

Gizarte-arloko ikuspegitik, desgaitasuna baldintzen sorta konplexu bat da. Haietako asko gizarte giroak sortu ditu eta, beraz, **arazoa kudeatzeko, gizarte-ekintza bat behar da**, eta gizartearen erantzukizun kolektiboa da ingurunean behar aldaketak egitea, desgaitasuna duten pertsonen bizitzako arlo guztietan osoki parte har dezaten.

Ikuspegi horren arabera, desgaitasuna ez da **gizabanako baten arazoa**, baizik eta pertsona batek izan ditzakeen mugek eta gizarteak altxatzen dituen askotariko oztopoek zehazten duten zerbait. Horrek sortzen du desperekotasuna.

Desgaitasuna duten pertsonen biztanleria talde heterogeneoa osatzen dute, baina denek dute berdina eskubideak osoki bizitzeko eta herrialdeko ekonomia-, gizarte- eta kultura-bizitzan gainerako herritarren antzeko baldintzetan parte hartzeko berme osagarriak behar izatea, neurri txikiagoan edo handiagoan.

ENTZUTEKO DESGAITASUNA

Belarria oinarritzko zentzumen-organoa dugu gure ingurunearekin harremanetan egoteko eta besteekin harremanetan jartzeko.

Soinu-estimuluak hautematea lagungarria zaigu inguratzen gaituen munduaren berri izan eta espazioan zein denboran geure burua kokatzeko.

Giza belarriak gaitasun izugarria du askotariko estimulua bereizteko eta, gaitasun horri esker, organo paregabea da **informazio finez eta konplexuez jabetzeko.**

Belarria (ikusmenarekin batera) da urrutitik hautemateko tresna nagusia.

Entzumena norabide guztietara hedatzen da eta, zentzu batean, adi jarraitzen du lo gaudenean ere. **Esplorazio- eta alerta-eginkizunak** betetzen ditu, atzealdeetako zentzumen gisa funtzionatzen du, soinu-estimulua ez dagoenean ere.

Entzumen-estimuluak joaten dira, galtzen, ezin dira denboran finkatu.

Sekuentzia, iragankortasuna eta jarraikortasuna dira, hain zuzen, entzumen-estimuluei esanahia ematen laguntzen duten elementuak. Entzumenaren ezaugarria, beraz, edozein soinuaren aurrean eskuragarri, ezin besteko eta sentibera izatea da, baita iragankorra ere.

Soinuaren alderdi garrantzitsuenetako bat emozioak eragin eta transmititzeko gaitasuna da. Tonu-desberdintasun,

bolumen, erritmo eta beste ahots- eta soinu-ezaugarri batzuk baliatuz, umeak afektu, samurtasun, estimulu edo purrustadaren artean bereizten ikasten du. Soinu horien imitazioak emango dio intentziodun komunikazioan hasteko modua.

Entzumena erabakigarria da ahozko hizkuntza ikasteko eta gizabanakoa haren ingurunearekin elkarrekintzan aritzeko.

Mila jaiotzatik bat gor sakonak dira, eta gainerako entzumen-galerak milatik 3,5era hel daitezke.

Horietan guztietan, gorreriak gizabanakoaren nortasun orokorrean eragiten du, eta haren gai eta alderdi garrantzitsuei eragingo die, adibidez, komunikazioa, hizkuntza, ingurunearen ezagutza, jendarteratzea, prozesu kognitiboak eta memoriaren funtzionamendua.

Entzuteak zer esan nahi duen deskribatuko dugu orain, ez entzuteak zer dakarren hobeto ulertzeko:

Entzuteak esan nahi du:

1.- Ingurunearekin jarraikortasunez harremanetan egotea, hitzezko eta ez-hitzezko mezuak etengabe jasotzea (*gu horretaz ohartu edo ez*), zer gertatzen ari den jakitea, eta horren aurrean behar bezala erreakzionatzea, adibidez, piztuta dagoen irrati bat estimulaziorako, ezagutza

berrietarako, ingurunearekin bat egiteko iturri jarraikor bat da, eta, ohartuki beste zerbaitetan gabiltzanean ere, hura hautematen dugu.

2.- Alerta-zentzumena prest izatea eta ingurunea esploratzera, esperientzia berriak bizitzera bultzatua sentitzea (ezagutza askoren garapena nahi gabe hasten da, inguruneak berak zirikatuta)

3.- Inguratzen gaituzten pertsonen hari buruz duten informazioa eta komentarioak biltzea (pertsona baten garapenarentzat, informazioa entzutea bezain aberasgarria da pertsonak ingurunean eragiten dituen komentario eta arrazoibideen berri izatea).

4.- Besteekin elkarrekintzan aritzea eta, era horretan, ikasi ahal izatea.

5.- Gizarte-arloko jokabide arauak barneratu ahal izatea eta erraztasun handiagoz egokitu ahal izatea (gizarte-egokitzapeneko arau ugari beste pertsonetan, eta ez zuzenean norbere buruan, horiek eragiten duten efektua behatuz ikasten dira); jokabidea itxuratzen laguntzen duten ohiko komentarioak EZ dira errazak harrapatzen pertsona gor batentzat.

6.- Gertaerei aurea hartu ahal izatea, hotsak eta gerora zerbait jazoko dela iragartzen duten kausak ezagutzea (sirena bat entzuteak, zirkunstantziak nolakoak diren, toki baten ebakuaziorako jokabide bat dakar, bidea libre uztea...).

Laburbilduz, zentzumenek eginkizun oso garrantzitsua dute pertsonak haren ingurunearekin duen harremanean, ingurunearen informazioa eskaintzen dutelako, hartarako erantzun egokia, eta pertsonari segurtasun eta oreka psikologikoa ematen diotelako.

Erraza da ulertzea entzuteko gabeziak hizkuntza garapenean eragiten duela, baina baita nortasun osoaren garapenean ere.

Ikuspegi horretan oinarrituz eta jakinik ez dela existitzen

unibertsalki baliozkoa den pertsona gorraren **profil bakar bat**, gizatalde honetako pertsonen oso maiz izaten duten ezaugarrien ideia bat irudikatu dezakegu.

1.- Haien errealitatearen pertzepzioa desberdina da, esan dezakegu mugatuago dela, hala kopuruz (beti inguratzen gaituzten entzumen-estimuluak EZ dira era egokian hautematen) nola kalitatez (soinua da objektu bat definitzen duten zatietako bat eta, elementu hori kentzean, objektuaren ezaugarriak murrizten ditugu, adibidez, zer izango litzateke txilibitu bat soinurik gabe?)

2.- Kontzeptualizazio- eta sinbolizazio-prozesua ere desberdina da: kontzeptuak ontzeko erreferentziazko gertaerak modu desberdinean hautematen badira, sortzen den sinbolizazioa ere desberdina da; gainera, entzumena duten pertsonen taldeak duen baino ñabardura gutxiagoko kontzeptu multzo bat sor dezakete, eta mugatuagoa, aberastasun gutxiagokoa.

3.- Ildo beretik, garapen sinbolikoari lotutako sorkuntza-prozesuek garapen txikiagoa izango dute. Alegia, gatazka-egoeren konponbidea, erabakiak, prozesu mantsoagoak dira.

4.- KOMUNIKAZIOA da gorreria duten pertsonentzat zailtasun handienak dakartzan arloa; gehienetan, ahoz egiten den informazio-transmisioa eta -harrera mugatuagoak ditu.

5.- Entzuteko desgaitasuna duten pertsona ugarik ahozko hizkuntza berariaz landu behar dute.

6.- Gorreria duten pertsonen jendarteko eta afektuzko harremanek ezaugarri bereziak dituzte: segurtasun-eza agertzen dute, zailtasunak baitituzte beren burua babestuz eta arrisku-egoeren aurrean erantzunak alde aurretik emateko, soinu-pertzepziorik gabe ez baitituzte detektatzen. Entzumena duten adin bereko pertsonetik harremanak bihurriagoak dira, ahozko hizkuntzen garapenean mugek zaildu egiten baitute harreman hori.

Gorreriak, gabeziatzat hartuta, entzumen-sistemako

anatomia edo/eta fisiologiaren funtzio bat galtzeari edo haren anormaltasunari egiten dio erreferentzia, eta ondorio zuzena **entzuteko desgaitasuna** du; horrek **ahozko hizkuntza eskuratzeko defizit bat** esan nahi du.

Desgaitasuna pertsonaren, haren ezaugarrien eta gizakiak berezkoa duen **dibertsitaterako** gaitu gabeko ingurune fisiko eta sozialaren arteko elkarrekintzak eragindako egoera bat da.

Desgaitasuna desager daitekeen egoera bat da, ingurune oztipoak kentzen baditugu. Pertsona gor baten “desgaitasuna” azpigituluak edo, adibidez, zeinu-hizkuntzako interpretea ez daudenean agertuko da, horrek inklusio osoa galarazten baitu.

**KOMUNIKAZIOA DA GORRERIA
DUTEN PERTSONENTZAT ZAILTASUN
HANDIENAK DAKARTZAN ARLOA;
GEHIENETAN, AHOZ EGITEN DEN
INFORMAZIO-TRANSMISIOA ETA
-HARRERA MUGATUAGOAK DITU.**

GORRERIAK PERTSONAREN GARAPEN OROKORREAN SORTZEN DITUEN INPLIKAZIOAK ETA BEHARRIZANAK

INPLIKAZIOAK	BEHARRIZANAK	INPLIKAZIOAK	BEHARRIZANAK
Ikusmenaren garrantzi handia	Ikusizko estrategietara jotzeko eta beste kanal batzuk baliatzeko premia	Ohiko familia-giroko inpaktua	Egoera berrian berregokitzeko laguntzaren premia
Munduaren ezagutza txikiagoa	Zuzeneko esperientziaren eta gertatzen denari buruzko informazio gehiagoren premia Informazioa zuzenean jasotzeko premia	Pertsona gorra identifikatzeko zailtasun sozialak	Helduen, profesionalen, familien, zerbitzuen eta abarren arteko koordinazioaren premia
Errealitatea ahozko hizkuntzaren bidez irudikatzeko zailtasuna	Irudikatutako hizkuntza-sistema baten premia	Jendarteko ingurunearekin komunikatzeko oztopoak	Estimuluak ulergarri egiteko eraldatzen joateko premia
Jendarteko eta pertsonaren identitate-arloko zailtasunak	Identitatea eta autoestimua segurtatzeko premia Kidekoekin harremanetan egoteko premia Pertsona gorra izateari buruzko gai zehatzak ezagutzeko premia	Askotariko gizarte-eremuetan sortutako informazioa eskuratzeko mugak: zuzenbidea, osasun-arloa, administrazioa, aisialdia, etab.	ZHI - Zeinu Hizkuntzako Interpreteak jartzea Informazio osoena eskuratzeko errazteko estrategiak sortzeko premia Informaziorako bitarteko teknikoak hornitzea: ikusizko panelak, bukle magnetikoak, Frekuentzi Modulatuko sistemak, azpituduluak...
Ahozko hizkuntza eskuratu eta komunikatzeko zailtasuna	Komunikazio-kode baliagarri bat eskuratzeko premia Gehiengoaren kodea nahita ikasteko premia		



ASKOTARIKO
GIZARTE-EREMUETAN
SORTUTAKO
INFORMAZIOA
ESKURATZEKO
MUGAK: ZUZENBIDEA,
OSASUN-ARLOA,
ADMINISTRAZIOA,
AISIALDIA, ETAB.

ARARTEKOAK, BERE "EAEKO
OSPITALEEK EZGAITUENTZAT
DUTEN IRISGARRITASUNAREN
DIAGNOSTIKOA" (2017),
HONELA DEFINITZEN DU
IRISGARRITASUNA: "EDOZEIN
PERTSONAK GAINERAKO
PERTSONEN ANTZEKO
BALDINTZETAN EDO BALDINTZA
BERBERETAN ERAIKINAK,
ZERBITZUAK EDO PRODUKTUAK
IZATEKO ETA ERABILTZEKO
DUEN AHALMENA DA. GAINERA,
ERABILERA AUTONOMOA
BERMATU BEHAR DA".

IRISGARRITASUN

Irisgarritasunak (erabilerraztasunak)

pertsona guztiek, haien gaitasun tekniko, sentsozial, kognitibo edo fisikoak edozein direla ere, objektu bat erabili, toki bat bisitatu edo zerbitzu batera sartu zein neurritan egin dezaketen definitzen du. **Hori ezin bestekoa eta halabeharrezkoa da**, beharrezko baldintza baita pertsona guztiek parte hartzeko, haien mugapen funtzionalak edozein direla ere.

Europako eremutik, Guztiontzako

Diseinuaren printzipioetan oinarrituz heltzen zaio irisgarritasunaren gaiari (Design for All). Diseinu-soluzioak bilatzen dituzte, pertsona guztiak beren inguruneko guneak, produktuak eta zerbitzuak erabiltzeko gai izan daitezen, edozein adin, genero, gorputz- eta buru- edo **zentzumen**-gaitasun eta kultura dutela ere, aldi berean gure gizartea eraikitzen parte har dezaten.

Guztiontzako Diseinuak giza dibertsitatea kontuan hartzen du, esku hartzen den herrialde, hiri edo herriko bizi-joerak, eta herritarren beharrianak, baina, gainera, «etorkizuneko aldagaiak» dei dezakegunen bitartez lan egiten du, alegia, etorkizuneko belaunaldiak eta aurrerabideak ekarritako aldaketak kontuan hartuz heltzen dio gaiari.

Laburbilduz, «Guztionezko Diseinua jarrera etiko bat da, giza dibertsitatearen errespetua, gizarte-inklusioren sustapena eta ekitatea zabaldu nahi dituen».

“GUZTIONTZAKO irisgarritasun UNIBERTSALA” da inguruneek, prozesuek, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek, baita objektuek eta tresnek, erremintek zein gailuek ere, bete behar duten baldintza, eroso eta segurtasunez era autonomoenean eta naturalenean pertsona guztientzat ulertterazak, erabilerrazak eta baliatzeko modukoak izan daitezen”.

Egun, irisgarritasunak utzi egin dio oztopo fisikoak kentzearen sinonimoa izateari, eta beste zentzu bat hartu du, **prebentzioari eta zabaltasunari begira**, gune, produktu eta zerbitzu mota guztietara orokortua. Bestetik, oinarritzko aldagai bat da aukera-berdintasunaren printzipioa betetzen dela bermatzeko eta, pixkanaka, herritar guztien bizi-kalitatea hobetzearen erakusgarri bat bihurtzen da.

Irisgarritasuna pertsonaren eskubide bat da, eta hala behar du tratatua, aukerak parekatzen direla lortzeko. Halaber, pertsonak autonomia eta mugikortasun pertsonalerako eskubidea du, bizitza osoki independentea lortzeko dagokion bezala. Bukatzeko, oinarritzko alderdi bat araudia da, duela urte batzuetatik hona ondasun, produktu edo inguru oro pertsona guztientzat irisgarri izatera behartzen duena. **Guztionezko Diseinua** jarrera etiko bat da, giza dibertsitatearen errespetua, gizarte-inklusioren sustapena eta ekitatea zabaldu nahi dituen.

Pertsona Desgaituen Eskubideei buruzko Konbentzioak dioen bezala: irisgarritasuna da pertsona batek toki batean seguru, eroso eta autonomiaz benetan sartu, ibili eta egoteko bidea ematen duen eskubide bat. Pertsona gai izan behar da hor sortzen den informazioa igorri eta jasotzeko, bere komunikazio-ahalmenei egokitutako sistemen bitartez.

Herritarrei erreparatuz gero, esan dezakegu **irisgarritasuna ezin bestekoa dela herritarren % 10arentzat, beharrezkoa haien % 40arentzat, eta eroso % 100entzat.**

Ingurune, produktu eta zerbitzuetako irisgarritasun-eza diskriminazio modu oso fina baina eraginkorra da (*), zeharkakoa kasu honetan, desgaitasuna duten pertsonen benetako desabantaila bat eragiten baitie desgaitasuna ez dutenen aldean, arau, irizpide edo praktika batek desgaitasuna duen pertsona bati ez duenari baino mesede gutxiago egiten dionean bezala. **Beraz, era horretan, bat egiten dute irisgarritasunaren eta diskriminazio-ezaren joerek.**

(*) **DESGAITASUNA** dela-eta edozein pertsonaren kontra zuzendutako **DISKRIMINAZIOA** **gizakiak berezkoak dituen DUINTASUN eta BALIO**aren **URRAKETA** da.

**HORREGATIK GUZTIAGATIK,
IRISGARRITASUNA ZEHARKAKO,
OINARRIZKO GAI BAT DA,
PERTSONAREN ARLO GUZTIEI
ERAGITEN DIENA ETA, BERAZ,
KONTUAN HARTU BEHARREKOA
ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO
SAIL GUZTIETAN ETA INGURUNE
PRIBATUETAN.**

ENTZUTEKO DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO INGURUNEKO IRISGARRITASUNA

Erreferentzia: Espínola, A. (2015): *Accesibilidad auditiva. Pautas básicas para aplicar en los entornos*. Granada: La Ciudad Accesible.

Entzuteko desgaitasuna duten pertsonen ingurune bateko erosotasun akustikoa, segurtasuna eta ergonomia ingurune horretako irisgarritasun-baldintza egokiek zehazten dute. **Haiek al bait modu onenean kendu edo/eta eragotziko dute diskriminaziorako baldintzak egotea.**

Entzuteko desgaitasuna duten pertsonen biztanleria oso heterogeneoa osatzen dute, askotarikoak izan baitaitezke entzumen-galera neurri berdina edukiz entzuteko gaitasunean eragin dezaketen aldagaiak (frekuentzia askotako soinu jakin batzuk entzuteko zailtasunak, irakurmeneko zailtasunak, hitz egiteko zailtasunak, etab.). **Irisgarritasun-neurriak aldagai horien arabera aldatzen dira.**

Hainbat bitartekok, soluzio teknikok eta laguntzako produktuk edozein ingurune baten entzuteko irisgarritasuna errazten dute, kontuan hartuz haietako gehienak ONURAGARRIAK direla gainerako biztanleentzat ere. Faktore horiek honela sailka ditzakegu:

INGURUNEA DISEINATU ETA ANTOLATZEKO FAKTOREAK ETA EREDUAK

Tokien diseinua eta banaketa haien baldintza akustikoak hobetzeko moduan egin behar dira. Garrantzizkoa da hutsarte zabal, sabai altu, parametro bertikal paralelo edo izkina karratuko gunerik ez edukitzea, akustika txarra eragiten baitute eta, ondorioz, entzuteko zailtasun handiagoa.

Akustika ona eskatzen duten gune guztiek zarata-sorburuetatik urrun beharko lukete, adibidez, eskailera, komun, sukalde eta abarretatik. Beraz, tokia diseinatzeko orduan, ondorengo ataletan aztertuko ditugun askotariko laguntza-produktuez gain, **ondorengo alderdiak hartu BEHARKO DIRA** kontuan:

ZARATA

Entzuteko gaitasuna galtzearen kasua larriena izateaz gain, entzuteko zailtasunean

eragin handieneko faktorea da. Faktore honek neurri handiagoan eragiten die entzuteko desgaitasuna duten pertsonen. Giro batean zarata egoteak zaildu egiten du hitzak ulertzea, hala ulertuz entzule batek zuzen interpretatzen dituen hitzen ehunekoa, ahal dela % 80tik gora. Faktore hau areagotu egiten da audifonoak edo kokleako inplanteak erabiltzen dituzten pertsonen artean, handitu egiten baitute heltzen zaien zarata.

Beraz, guneetako baldintza akustikoak zaindu behar dira, zaratak egotea eragotziz eta beste faktore batzuk kontuan hartuz, adibidez, zarata gutxiko aire girotuko aparatuak, etxetresna elektrikoak eta abar erabiltzea, eta saiaturaz horiek pertsonetatik al bait urrutien egotea.

ERREBERBERAZIOA

Erreberberazioa deitzen zaio espazioan soinu-energiak duen iraunkortasunari, soinu-sorburuak hura igortzeaz gain dionean ere. Entzumen-protesien erabiltzaileek gehiago nabaritzen dute erreberberazioa, protesiek seinale akustikoa handitu egiten baitute, eta erabiltzaileek oihartzun handiagoa jasotzen dute. Arazo horretarako **konponbide bat** altzarrietan eta dekorazio-elementuetan material xurgatzailea erabiltzea da, uhinak xurgatu eta errebotea eragozteko.

XURGAPEN AKUSTIKOA / ISOLAMENDUA / MATERIALAK

Xurgapen akustikoko koefiziente ona duten materialak aukeratu behar dira; izan ere, horren arabera, soinua gehiago edo gutxiago xurgatuko da. Xurgapen-materialak,

soinuari gelaren barnean eusteaz gain, eragotzi egiten du erreberberazioaren zarata maila handitzea.

Beraz, astunak, malguak eta jarraikorrak **izan behar dira**. Toki egokietan jarriko dira, eragiten duen energia akustikoa zabaltzea eragozteko.

Material porotsuak izan behar dira.

- Akustika egokia lortzeko, **xurgapen-materialen eta soinu-islatzaileen arteko oreka** lortu behar da; beraz, azterketa zorrotz bat egin behar da kasu bakoitzean zein material mota erabili erabakitzeko. Hartara, al bait gehien murriztuko dugu dardara.

- **Beirak**, gehiegi erabili gabe, gune desberdinak zatitzeko.

- Distirarik gabeko **ateak** eta mahaia, burdinazkoak ez direnak, ateetako behatxuloak, U forma duten edo biribilak diren mahaia, etab.

SOINU-SORBURUAREN ETA HARTZAILEAREN ARTEKO DISTANTZIA

Soinu-sorburuaren eta hartzailearen arteko distantziak **zuzeneko eragina du hitza ulertzeko eta soinua hartzeko orduan**; izan ere, soinu maila 6db gutxitzen da sorburuarekiko distantzia bikoizten dugun bakoitzean. **Hitzaren ulermen maila ere ingurune baten zaratak eta solaskideen arteko distantziak muga dezakete.**

...

■ ARGIZTAPENA / ENTZUTEKO DESGAILASUNA DUTEN PERTSONEN KOKAPENA

Argitasun maila egoki batez, entzuteko desgaitasuna duten pertsonak errazago komunikatu ahal izango dira ingurunearekin, begi bidezko harremana errazten duelako; **beraz, ez da traba egiten duen islarik eta iluntasun-tarterik utzi behar.** Garrantzizkoa da argi naturala hitz egiten duen pertsonaren bizkarrean egotea; era horretan, entzuteko desgaitasuna duten pertsonak behar bezala behatu ahal izango du, eta ezpain-aurpegiak irakurri.

Jendea sartzen den edozein gunetan

(adibidez, laneko bilkura, hitzaldi eta aisialdirako tokiak, lanpostuak, etab.),

komeni da lehendabiziko lerroetan erreserbatutako guneak edukitzea.

Hartara, distantzia nahikoa izango da erabiltzaileak hizlariaren ezpainak irakurri ahal izateko eta azpigituluaren zein zeinu-hizkuntzako interpretearen bidez informazioa eskuratzeko.

KOMUNIKAZIO-SISTEMAK ETA LAGUNTZA-PRODUKTUAK

Proiektua diseinatzeko orduan, soinu-transmisiorako sistemen instalazioa hartu behar da kontuan, adibidez:

■ BUKLE MAGNETIKOA

Laguntza tekniko bat da, ingurunean entzumen-irisgarritasuna hobetzeko eta edozein espaziotan soinu- eta hizkuntza-informazioa eskuratzeko balio duena. Gailu horrek balio du **audifonoa edo kokleako**

inplantea erabiltzen duen pertsonak informazioa zuzenean eskuratzeko, zaratak kutsatuta dauden edo/eta solaskidearekiko distantziak mezua ulertzea zailtzen duen tokietan. Horiek instalatzeko, UNE-EN60118-4:2016 (IEC 601 18-4:20:14) arauan oinarrituz, instalazioa bermatu eta akreditatzen duten profesionalak behar dira, eta identifikatzen duen irisgarritasun-ikurrarekin adierazi behar dute hori.

- Azalerako bukle magnetiko bat instalatzeko aukera: eremu bat egokitzeko diseinatu, audio-eremu magnetiko bat sortuz.

- Mahaigaineko bukle magnetikoen instalazio finkoa (lehiatilak, erakusmahaiak...): kableatze-diseinu bat egiten da, bezeroak betetzen duen espazioa eta erakusmahaiaren dabilen pertsonarena egokitzeke.

- Bucle magnetiko indibidualak: pertsona gorra lepoaren inguruan jartze duen begizta bat da FM hargailu bati konektatuta (frekuentzia modulatu), eta FM ere den igorgailu batetik hartzen du seinalea.

■ FREKUENTZIA MODULATUKO (FM) EKIPOAK

Komunikazio-sistema sinplea da: igorgailu bat, mikrofonoa eta hargailua. Mikrofonoa soinu-sorburutik hurbil erabiltzen da, eta seinale hori seinalea igortzen duen hargailura helarazten du areagotuta (anplifikatuta). Hargailu hori izan daiteke audifono bat edo kokleako inplante bat. **Ekipo hori EZ da amplifikazio-sistema bat, transmisiokoa (igorpenekoa) baizik.**

...

■ AZPITITULUAK

Azpigituluak dira pertsona gor guztiek informazioa alaitz gehien eskuratu ahal izateko modu zabalduena, eta ezin bestekoa da entzuteko desgaitasuna eduki eta komunikaziorako bitarteko bakartzat ahozko hizkuntza duten herritarrentzat; informazio literal ematen baitute ahozko hizkuntzaren adierazpenean.

- Zuzeneko azpigituluak: aldi bereko transkripzioa, hitz egindako mezuaren lokuzioa idatzizko testura.

- Erdizuzeneko azpigituluak: landu eta formatu elektronikoan prestatzen da, haiek abiarazteko nahikoa denboraz eta programa ematean sinkronizatuz.

- Grabatutako azpigituluak: pertsona gorrek ikus-entzunezko euskarri eta materialetan eskuratu ahal izatea bermatzen du.

Azpigituluak indarrean den kalitate-arauko irizpideen arabera ematen dira (UNE 153010:2012).

■ ZEINU-HIZKUNTZA

27/2007 Legearen arabera, zeinu-hizkuntza ikusizko, espazio, keinu eta esku bidezko hizkuntza-sistema edo hizkuntza da, eta hura osatzen historia-, kultura-, hizkuntza- eta gizarte-arloko faktoreek parte hartzen dute.

■ ZHI - ZEINU HIZKUNTZAKO INTERPRETEA

Zeinu-hizkuntzako interpretea edo/eta Gidari-Interpretea ondorengo profila duen profesionala da:

- Zeinu-hizkuntzan eta ingurunezko ahozko hizkuntzetan gai da.

- Hizkuntza horietako batean igorritako mezuak interpretatu eta beste baliokide batean eraginkortasunez eta zintotasunez jartzeko gai da.

- Bere misioa da pertsona gor eta entzuleen artean komunikazioa erraztea, hala gizabanakoen artean nola taldean.

- Komunikazio-zubi bat bihurtzen da bi hizkuntza eta kulturen artean; horregatik, interpretea ZH ondo darabilen pertsona izan behar da, baina gainera, pertsona gorren ezaugarriak eta hura inguratzen duten berezitasunak ezagutu behar ditu.

- Informazioa transmititzeko bitartekoa da.

Zeinu-hizkuntzako interpretea ondorengo beharrezanez aurre egiteko sortzen da:

- Pertsona gorra eta entzuleak aurkitzen dituzten Komunikazio Oztopoak kentzea, komunikazio-kode desberdinak baitituzte.

- Pertsona gorrei zeinu-hizkuntzan informazioa eskuratzeko modua eman, beren erabakiak har ditzaten, beharrezko informazioa eskuratzen haiei lagundu eta irizpide bat izan dezaten.

- Informazioa eta komunikazioa eskuratzeko eskubidea aitortzea, hala zeinu-hizkuntza darabilen pertsona gorrena nola hura ezagutzen ez duen pertsonarena.

Bere lana egiteko orduan, interpretea edo gidari-interpretea Deontologia Kodeari lotuta dago, nahitaez bete beharrekoa

Espainiako estatuan lanbide horretan diharduten profesional guztientzat. Kode horrek, FILSEk (Zeinu Hizkuntza Interprete eta Gidari-Interpreteen Espainiako Federazioak) eta bere elkarte kideek ondu eta onartutakoak, zeinu-hizkuntzako interprete eta interprete-gidarietako jokabide egokia zein den zehazten du. Haien lana ondorengo printzipioetan oinarritzen da:

Neutraltasuna / inpartzialtasuna: jarrera neutrala dute, ez dira komunikazio-egoeran inplikatu. Debatuta dute interpretazio-lan batean ezein erabiltzailerik iritzia, aholkua eta besterik ematea.

Zintzotasuna: informazio osoa jaso bezala igortzen du. Zeinuz ematen eta esaten den guztia interpretatzen du, erabiltzaile guztiak berdintasun baldintzetan egon daitezten.

Konfidentzialtasuna: zerbitzua amaitzean, interpreteak

- NO hace pública la información del servicio.
- NO da información que puede identificar a un usuario.
- NO se aprovecha de la información.

ZEINU-GIDAK ETA AUDIOGIDAK

Zeinugidak PDA moduko gailu batzuk dira (*Personal Digital Assistant* edo Laguntzaile Pertsonal Digitala), eramangarriak, eta audioa, zeinu-hizkuntza eta azpitituluak sartuz, erraztu egiten dituzte ingurune,

produktu edo zerbitzu jakin bati buruz helarazi nahi dugun informazioaren gaineko azalpenak. **Audiogida** sistema elektronikoa da, askotariko espazioetan gida pertsonalizatuak egiteko balio duena, eta informazioa audio-seinalez erakusten du.

Audiogidak irisgarritasuna hobetu dezake, instalatua duen bukle magnetiko baten bitartez.

INTERNET-IRISGARritasuna

Webgunean eskaintzen diren edukiek irisgarri behar dute entzuteko desgaitasuna duten pertsonentzat. Faktore horrek, entzuteko desgaitasuna duten pertsonen ez ezik, beste herritarrei ere on egiten die, aplikatzen diren neurriak unibertsalak baitira. **Entzuteko desgaitasuna duten pertsonentzat, garrantzizkoa da ondorengo puntuak kontuan hartzea:**

- Ikus-entzunezko elementu guztiak azpititulatuta egon behar dira.
- ‘UNE 139804:2007 Informatika-sareetan Zeinu Hizkuntza erabiltzeko betekizunak’ arauak zehazten dituen bezalako Zeinu Hizkuntzako interpreteak izan behar dira, baita prestasuna adierazten duen ikono bat ere eduki.
- Zuzeneko hizkuntza erabiltzea, hitz gehiegi gabe, ulertzeko sinplea eta erraza.
- Nabigazioa errazten duen webgune-mapa bat izatea.
- Webcam edo kameren bitartez, ikusizko komunikazioa erraztea, bideokonferentziak egiteko moduan.

• Orrialdeko informazio kopuru txikiagoa orrialde kopuru handiagoaz konpentsatzea.

• Hitzak ikonoekin laguntzea, eta erabili beharreko etiketak hautatzeko orduan hitz kopuru murrizta kontuan hartzea.

TELEFONO-ARRETA IRISGARRIA

Teknologia-aurrerapenek, bereziki informatikoen eta elektronikoen, testu-telefonoa garatzeko modua jarri zuten, eta horiek ekarri zuten telefono-komunikazioan benetako iraultza duela urte gutxi: **bideo-interpretazioa.**

Zerbitzu horrek urruti dauden bi pertsonaren arteko interpretazioa ahalbidetzen du: bata gorra (zeinu-hizkuntza erabili edo ez) eta bestea entzulea.

Sistemak askotariko komunikazio-tresnak (telefonoa, bideotelefonoa, Internet bidezko webkamera, terminal mugikorra eta abar) kudeatzen dituen teknologia-plataforma bat baliatzen du.

Gainera, sistema pertsona gorraren komunikazio-lehentasunetara egokitzeko asmatuta dago: ahotsez, txat bidez, bideo-deiaz eta abarrez. Operadorea zeinu-hizkuntzako interpretea izan behar da, pertsona gorrek hizkuntza horretan egin ditzaketen deiei arreta emateko.

Zerbitzu horrek harrera beroa izan du pertsona gorren artean, komunikazioa berehalakoa eta eroso delako.

...

Zalantzarik gabe, pertsona gorren telefono-arretarako, hura da kultura-industriek hornitzeko har dezaketen sistema aurreratu eta eraginkorrena, gaur gaurkoz.

LARRIALDIA ETA EBAKUAZIOA

Jende-etorri handia duten tokietan, komeni da edozein gorabehera edo larrialdi-abisu eta berehalako erantzun soinu ematea, baita **testu-abisuz eta argi-seinalez** ere. Argi ohartarazle horiek **ikusteko moduko tokietan**, igogailuetan, leku komunetan eta lanpostuan bertan jarriko dira. Larrialdi-egoeretan, **entzuteko desgaitasuna duen pertsonak modua izan behar du ebakuazio-bide, jarraibide, larrialdi-irteera eta abarrei buruzko azalpenak eta seinalaztapena identifikatzeko**, testu-abisuen (display) eta argizko bitartekoen bidez, betiere kolore biziz eta inguruarekin kontrastea eginez.

Toki itxietan dauden pertsonak kanpoaldearekin ikusiz komunikatzeko gai izango dira larrialdiko azalpen egokiak jaso ditzaten, igogailuen kasuan, adibidez. **Laguntza-deiak bukle magnetikoa duten gailu batez hornituko dira, baita norantzko biko ikusizko komunikazio-sistema batez ere.**

...

BESTE BITARTEKO BATZUK

Ondorengoak dira komunikazioan laguntzeko produktuak eta hura errazteko sistemak: **audifonoak, kokleako inplanteak, dardara bidezko iratzargailuak, interkomunikadoreak, telebista- eta telefono-soinuen anplifikadoreak, etab.**

Goian adierazitako faktore guztiak komunikazioa eskatzen duten sistemetako bakoitzean sartu behar dira, adibidez: mikrofonoak eta megafonia, telefonoak, kutxazain automatikoak, banaketa-makina automatikoak, igogailuak, bideo-atezainak, etab.

ENTZUTEKO DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN TRATU EGOKIRAKO JARRAIBIDEAK

Desgaitasuna duten pertsonen ematen zaaien tratu egokiak badu ere eragina gizatalde horren edozein ingurunetako irisgarritasunean eta, beraz, **komeni da jarraibide batzuk kontuan hartzea:**

- Segurtatu entzuteko desgaitasuna duen pertsonaren arreta harekin hizketan hasi baino lehen. Begiratu begietara.
- Erabili hizkera sinplea, zuzena eta egokia, egoki ahoskatuz, baina sobera gabe.
- Ez garrasi egin. Kontrako efektua eragin dezake, gure aurpegia sumintzen baita, eta pertsonak gaizki uler dezake adierazi nahi dioguna. Gainera, ezpainen irakurketa zailtzen du.






- Egon lasai, hitz egin batez besteko erritmoa erabiliz eta saiatu elkarrekin komunikatzeko estrategia egokiena aukeratzeko.
- Eduki ahotsa garbi, objekturik edo janaririk gabe.
- Ez egin ezpainak irakurtzea eragozten duten mugimenduak, adibidez, burua jiratzea, bizkarra ematea, etab.
- Saiatu laguntzen keinu sinpleak, ikusizko erakusgarriak eta idazkera baliatuz.
- Komunikatu elkarrekin toki argitsu batean, gu ondo ikus gaitzaten.
- Zeinu-hizkuntzako interprete bat erabiltzen badugu, desgaitasuna duen pertsonari zuzendu behar gatzaizkio, ez interpretari.
- Arreta deitzeko, haren sorbaldan edo besoan kolpe arin pare bat eman diezazkiokegu. Gela batean egonez gero, argia itzali eta piztu dezakegu. Beste aukera bat da mahaian edo lurrean arin kolpatzea, dardarak hauteman ditzan. Egokiena pertsonaganaino hurbiltzea da.
- Talde-bilkuretan, errespetatu hitza hartzeko txandak denek batera ez hitz egiteko. Pertsona batek entzuteko desgaitasuna duen pertsonari bizkarra emanez hitz eginez gero, komeni da esan duena errepikatzea.
- Beharrezkoa da edozein estimuluri buruzko argibideak ematea; era horretan, inguruko erreakzioak ulertu ahal izango dituzte.
- Kontuan hartu askotan ez dituztela bi zentzuko esaldiak ulertzen, ezta txistek edo aldarteak ere (poza, haserrea, nekea, etab.).

**GOIAN ADIERAZITAKO
FAKTORE GUZTIAK
KOMUNIKAZIOA
ESKATZEN DUTEN
SISTEMETAKO
BAKOITZEAN SARTU
BEHAR DIRA, ADIBIDEZ:
MIKROFONOAK
ETA MEGAFONIA,
TELEFONOAK,
KUTXAZAIN
AUTOMATIKOAK,
BANAKETAMAKINA
AUTOMATIKOAK,
IGOGAILUAK,
BIDEOATEZAINAK, ETAB.**

ARLOAK



POLITIKA INSTITUZIONALAK

Askotariko gobernuko sailek herritarrei helarazi nahi dizkieten mezuak zabaltzeko bitarteko oso erabili bat **PUBLIZITATE KANPAINA INSTITUZIONALAK** dira. Horiek ez dute beti betetzen herritar guztiei helarazteko betekizunak, baina hasiera batean hala izateko prestatzen dira. Pertsona gorrentzat ez dira jartzen bitartekoak informazioa jaso ahal izateko eta, ondorioz, gizatalde hori informaziotik bazterrerera geratzen da.

Aipatuko ditugun sailek publizitate-kanpaina masiboak erabiltzen dituzte herritarren multzoari balio-sortak eta ekinbiderako politiken, eskubideen, segurtasun-elementuen eta abarren berri helarazteko. Idatzizko prentsa erabiltzen den arren, ikus-entzunezko kanala oso sarritan erabiltzen da; hala ere, oso gutxitan sortzen dira askotariko iragarkiak Diseinu Unibertsalaren ikuspegitik. Adibide modura, beharrezko bitartekoak erabili ez diren ondorengo kanpainak aipa ditzakegu: eskolako aurrematrikulaziorako urteko kanpainak, gripeareen kontra txertatzekoak, titietako eta koloneko minbizia prebenitzeko kanpainak, errenta-aitorpenekoak, trafiko-istripuak prebenitzeko kanpainak, etab.

Kanpaina batzuk urtero errepikatzen dira publizitate-tarte desberdina baina goiburu berdina baliatuz; hala ere, horietako gutxitan erabiltzen da beharrezko azpititulazioa entzuten ez duten herritarrengana bertan helarazi nahi diren informazioa, balioak edo emozioak hel daitezen. Are, horietako batean ere ez da agertzen lauki batean zeinu-hizkuntzako interprete bat informazioa hizkuntza horretan adierazten.

**AZALPEN ZAILA DU DUELA HOGEITA
HAMAR URTE ESKATZEN GENITUEN
EGOKITZAPENAK ERREKLAMATZEN
ARITU BEHAR IZATEA, HORIEK
BABESTEN DITUZTEN ASKOTARIKO
LEGEDIAK DAUDENEAN. LEGEDI
HORIEK EZ BETETZEAK GIZATALDE
BATEN DISKRIMINAZIOA DAKAR.**

HEZKUNTZA



Pertsona gorrei edo entzumen-zailtasuna dituztenei lotutako hezkuntza-inguruneetako irisgarritasunak erreferentzia egiten die pertsonak era guztietako informazioak jaso eta adierazteko aurkitzen dituen komunikazio-oztopoei, direla informazioak curriculumekoak, direla emozioei buruzkoak, edo hezkuntza-ingurunean sortutako orokorrak.

Duela urte batzuetatik hona, Hezkuntza Sailak, gorrieria duten ikasleen familia-elkarteekin batera, ahalegin handiak egin ditu derrigorrezko eta derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza-etapa guztietako ikasle horiei komunikazio-oztopoak kentzeko eta haien parte-hartze tasa handiagoak lortzeko.

Horretarako, Sailak giza eta teknologia-bitartekoak bideratu ditu hezkuntza-ingurunean sortutako informazioaren eta gizabanakoaren arteko bitartekari lana egiteko, eta alderantziz.

Egia da artean hobetu egin daitezkeela gauzak, baina esan daiteke gizabanako garapenaren arlo horretan egin direla aurrerakada handienak.

Ahaleginek nagusiki curriculum-alderdiei erreparatu diete hertsiki, eta ez hainbeste informazio asko ematen duten gainerako elementuei, adibidez, abisuei, familientzako mintzaldiei eta abarrei. Gure ustez, beraz, badaude ikasleen inklusio handiagoa errazteko kontuan hartu behar diren elementuak, eta ez ikasleena bakarrik, baizik eta haien familia-unitateena ere, ikasle horien legezko tutoreak ere entzuteko desgaitasuna duten pertsonak badira.

Ondoren, entzuteko desgaitasuna duten ikasleek eta haien familia-inguruneak gehiago eta hobe parte har dezaten kontuan hartzeko alderdi batzuk zerrendatzen dira:

- Kontuan hartu eskola-ordutegia edo askotariko klase-aldaketak hasiko direla ohartarazten duten seinaleak. Seinale horiek, entzutekoak ez ezik, ikusizkoak beharko lukete.
- Espazio komunek (korridoreak, komunak, jantokia, etab.) eta ikasgelek soinu- eta argi-larrialdi abisuak izan behar

dituzte, eta bigarrenek kokapen ezin hobean behar dute ikasleek ondo ikus ditzaten.

- Garrantzizkoa da, halaber, igogailuen komunikazioa, entzunezkoa ez ezik, ikusizkoa izateko ere aurreikustea, kabina-barnetik kanpoaldera, matxura bat gertatzen bada. Kabinek bitarteko geldieren eta mugimenduen soinu eta ikusizko informazioa adierazi behar dute (gora, behera, etab.), eta sail egoki bati konektatutako interkomunikadore erabilerraz bat izan behar dute; gainera, modua eman behar dute kristalen bidez kanpoaldea ikusi ahal izateko.

- Ikasgela barneko argitasunari buruz kontuan hartu beharreko gai garrantzitsu bat da gorrieria duten ikasleek argi eta garbi ikusi behar dutela irakaslearen eta beren ikaskideen ahoa, haien ezpainak irakurri ahal izateko eta, zeinu-hizkuntzaren erabiltzaileak egonez gero, interpretea ondo ikusi ahal izateko.

- Garrantzizkoa da ikasgeletako akustika zaintzea ikasle guztien mesedetan, baina bereziki entzunezko informazioa eskuratzeko eta ahoz adierazten diren mezuak ulertzeko zailtasunak dituztenentzat:

- Ikasgelako paretak kortxoetako edo beste materialezko panelen bidez estal daitezke, dardarak xurga ditzaten eta zarataren erreberberazioa eta interferentziak eragotz ditzaten.

- Mahaien eta aulkien hankek feltrozko babesak izan behar dituzte.

- Diapositiben proiektorea, eretroproiektorea eta aire girotuko sistema albait isilenak izan behar dira.

- Jantokia akustika txarreko gunea izaten da eta, beraz, soinuak malgutzen duten materialak izan behar dira kontuan, babesak dituzten aulki-hankak, informazio-aulak... Halaber, langile laguntzaileek (jantokiko eta ordutegi horretan egiten diren ekintzen begiraleek) ikusmen- eta/edo entzumen-desgaitasuna, burmuin-paralisia, autismoa eta abar duten

pertsonekin komunikatzeko sistemak ezagutu beharko lituzkete.

- Atarian, atezain automatiko bat balego ikastetxera sartzeko ohiko ordutegiaz kanpora hura erabili ahal izateko, saiatuko gara bideo-atezaina jartzen, ezpainen irakurketa erabili ahal izateko edo, deiaren hartzailea zeinu-hizkuntzaren erabiltzailea izanez gero, hura erabiltzeko.

- Filmen edo dokumentalen barne- zein kanpo-ekintzetan, aldezturik, saiatu beharko ginateke horiek, gutxienez, azpititulatuak izaten, gorreria duten ikasleek informazio gehiago biltzeko. Gainera, entzuteko desgaitasuna duten ikasleei edukiaren laburpen bat aldezturik pasako bagenie, landu beharreko gaien inguruko oinarritzko ideia batzuekin joango lirateke.

- Mota horretako ekintzetan, ikasleak laguntza teknikoak erabiltzen baditu, adibidez, frekuentzia modulatuak igorgailuak, komeni da horrelako ekintzetan erabili ahal izatea.

Gorreria duten edo entzuleak diren ikasleen familiek ere beharrianak izan ditzakete Komunikaziorako Oztipoak dagokienez, baldin eta bi legeko tutoreak (edo horietako bat) entzuteko desgaitasuna duten pertsonak izango balira.

Egoera horretan, kontuan hartu beharreko alderdiak ondorengoak dira:

- Familiaren eta ikastetxearen arteko komunikazioak, askotan, ezingo dira telefono-dei arrunt baten bidez egin; beraz, beharrezkoa izango da horrelakoetan ikastetxeak bere sistema abian jartzea, adibidez, Whattsappa, posta elektronikoko helbide batez gain. Haien bitartez, familiak seme-alabari buruzko informazioa jaso ahal izango du.

- Halaber, hala administrazio-harremanetarako nola seme-alabaren heziketa-ibilbideari lotuta zuzendaritza-taldearekin edo irakasleekin harremanetan izateko, guztiz beharrezkoa

da zeinu-hizkuntzako interprete bat egotea, baldin eta familia zeinu-hizkuntzaren erabiltzailea izango balitz, edo/ eta ikastetxeko ordezkariak pertsona gorrekin harremanetan izateko oinarritzko arauak ezagutzea.

- Familiarekiko mota horretako harremanetan, komeni da alaitz pertsona kopuru txikiarekin izatea; izan ere, zaila izaten da haien pertsona bat baino gehiago dagoen elkarrizketa bat jarraitzea.

- Kontuan izan behar da elementu inklusiboenetako bat dela ikasleek eta haien familiek eskolaz kanpoko ekintzetan zein familia-elkarteak eta ikastetxeak antolatutakoetan parte hartu ahal izatea:

- Eskolaz kanpoko ekintzetan ikasleek parte hartzeko, sarritan, adibidez, joko edo kirolaren araudiari buruzko azalpenetan, beharrezkoa izaten da giza baliabideak eskuan izatea, ikasleen eta begiraleen arteko komunikazioan bitartekari-lana egin dezaten.
- Elkarrekin edo/eta ikastetxeen sustatutako ekintzetan familiek parte hartzeari dagokionez, ekintza garrantzitsuenetako bat Familien Ikastetxeetan ematen den informazioa eta prestakuntza izaten da, batzuetan udalek berek sustatuta. Familia horiek parte hartzeko, haiek dituzten komunikazio-beharrianak aurreikusi behar dira, askotan, zeinu-hizkuntzako interprete baten beharra aurreikusiz.

GORRERIA DUTEN EDO ENTZULEAK DIREN IKASLEEN FAMILIEK ERE BEHARRIZANAK IZAN DITZAKETE KOMUNIKAZIORAKO OZTIPOEI DAGOKIENEZ, BALDIN ETA BI LEGEKO TUTOREAK (EDO HORIETAKO BAT) ENTZUTEKO DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK IZANGO BALIRA.

OSASUNA / OSAKIDETZA

Osasuna eta laguntza onena edo gogobetegarria izateko eskubidea ezin besteko elementua da gizarte demokratiko guztietan. Osasun-sistema eta zerbitzuak eskuratzeko oztupoak egoteak¹ argi eta garbi urratzen du Nazio Batuen Pertsona Desgaituen Eskubideei buruzko Konbentzioko (DPEKeo) 25. artikulua. Artikulu horrek dioenez:

“(...) pertsona desgaituek eskubidea dute[la] ahalik eta osasun-maila handiena izateko, desgaitasun-arrazoen ondoriozko bereizkeriarik gabe. Estatu alderdiek neurri egokiak hartuko dituzte, pertsona desgaituek eskura izan ditzaten osasun-zerbitzuak, kontuan hartu beharko dituztenak genero-arazoak, osasunarekin zerikusia duen birgaikuntza barnean dela. Osasun-arreta askatasunez eta informatuta emandako adostasuna oinarri hartuta emango da” (DPEK, 2006).

Halaber, hainbat lege desgaitasuna duten pertsonen irigarritasuna, eskubideak eta gizarte-inklusioko arautzen dituzte.²

Entzumen-gabezia duten pertsonen oztupo ugari aurkitzen dituzte egunero, eta informazioa eskuratzeara oinarritzko eskubide bat kentzearen adibidea da; izan ere, informazioa ez dute eskuratzeko gizarte entzuleek, oro har, dituzten baldintza berdinetan.

Pertsona gorrek (aho edo zeinu bidezkoak), gizarte entzuleak ez bezala, ahalegin handiagoa egin behar dute gizartean eta, kasu honetan, osasun-sisteman, dabilen informazio osoa eskuratzeko.

Pertsona gorrek aurkitzen dituzten zailtasun edo oztupoen barruan, ondo dago nabarmentzea arazo handiak dituztela

testuaren bihurteta hutsaren hesia gainditu eta ulermenez irakurtzeko.

Irakurketaren oinarritzko prozesuak ikasten dituzten arren, zailtasun larriak dituzte egungo gizarte-beharrizaneekin bat etorritik alfabetatzeko.

Alfabetizazio horrek, gainera, OSASUNARI lotutako prozesuei eragiten die.

Harper-en iritziz (1999)³, pertsona gorrek alfabetatze maila txikiagoak dituzte ingelesez, eta osasunaren zaintzaren ezagutza txikiagoa, baita aukera gutxiago ere osasunerako hezkuntzan beren lagun entzuleek baino.

Harper-ek aipatzen jarraitzen duenez (1999), ezaugarri horiek guztiak ezin bestekoak dira pertsona gorrek haren osasuna/gaixotasuna ulertu, arreta eta informazioa eskuratu eta haren tratamendu-aukerak ezagutu eta erabili ditzan. **Bestetik, ezagutza-falta horrek eragin garrantzitsua izango du pertsonaren ekimenean, asertibitatean, eskatutako osasun-zerbitzuetan eta horien kalitatean, pertsonaren bizitza osoan.**

Orain, OSASUN-SISTEMAREKIKO harremanean PERTSONA GORREI nabarmen ERAGITEN dieten egoerak azalduko ditugu:

1.- OSASUNARI LOTUTAKO ERAKUNDEEK IDATZI ETA ARGITARATUTAKO MATERIALARI DAGOKIONEZ:

- Osasunari buruzko informazioak hizkera ulerterraz batean idatzia behar du, nork bere burua hobeto zaintzen,

erabakiak hartzeko era hobetzen eta pertsonen bizi-estiloak hobetzen lagun dezan.

- Informazioa argia, zehatza eta ulerterraza izan behar da, osasunean emaitza hobekien lortzeko.
- Materialak pertsona gehienentzako ulerterrazak izan behar dira, heziketa maila, kultura-jatorria, adina, desgaitasuna eta beste faktore batzuk edozein direla ere.
- Idatzizko materialak prestatzeko orduan, biztanleria mota ez ezik, ondorengo puntuak hartu behar dira kontuan: eduki argia, zehatza eta baliagarria izatea; antolatutako egitura izatea; estilo sinplez, zuzenez eta irakurketa errazez landua; ulermenerako elementu lagungarriak izatea; azkenik, hobekuntzarako egiaztapen-sistemak eta ebaluazioa biltzea, ulermen maila onena eskuratzeko.
- Askotariko formatuak erabiltzea, jomugako biztanleria taldera egokituak: pertsona gorren kasuan, zeinu-hizkuntza edo, beste kasu batzuetan, horiek ulertzea errazten duten piktograma estandarizatuak.

Osasun Saileko web-orritik deskargatzeko modua emango da, Osasun Zentroetan eskura daitekeen paper-formatuez gain.

2.- KOMUNIKAZIO-SARBIDERAKO OZTOPOAK:

- Osasun-zerbitzuek, kasu askotan, ez dituzte baliabide teknikoak edo pertsona egokiak pertsona gorrek aukeratzen dituen komunikazio-modalitateetarako, adibidez, zeinu-hizkuntzako interpreteak, bideo-

interpretazioa edo bukle magnetikoa, inork bere entzumen-hondarrak erabili nahi izanez gero.

- Zeinu-hizkuntzako interpreteak eskuratzeko ezintasuna. Interpretazio-zerbitzua ematea segurtatzeko, aldeztu aurretik erreserbatu behar da.

Osasun-larrialdietan, interpretazio-zerbitzu hori ez dago eskueran. Halaber, ordutegi bat dute eta, hortik kanpora, ez dago eskueran. Egoera horiek guztiek bultzatuta, zeinu-hizkuntzadun pertsona gorrek senitartekoetara edo lagun entzuleetara jo behar dute, “interprete” lanak egin ditzaten, edo interpretazio-enpresa pribatu baten zerbitzua pagatu behar dute.

- Zerbitzu batzuetan, adibidez, Onkologian, telefono mugikorreko zenbaki bat ematen diete gaixoei, edozein informazio, zalanza edo tratamendu jakin bat aplikatu ondoren sortutako albo-ondorioetarako. Zenbaki hori, ordea, entzumen eta ahoskoa da eta, beraz, ez du idatzizko aukerarik ematen pertsona gorrek hura erabiltzeko. Era horretan, hurbileko beste pertsona entzuleen mendeko izaten jarraitzen dute.
- Ez dago entzuteko desgaitasuna duen pertsonaren tipologia jakin bat. Ahozko gaitasunak, ezpainak irakurtzeko trebezia eta irakurri-idatzeko mailak desberdinak dira eta, horregatik, entzuteko desgaitasuna duen pertsonari galdetu beharko litzaioke zein duen komunikazio-modalitate onena.
- Interpretazio profesionalak, izan aurretik aurrekoa, izan “urrutikoa”, zeinu-hizkuntzadun pertsona gorren eskubideen errespetua segurtatzen du (intimitatea eta autonomia), eta deontologia-kode batez arautzen da.

Hala ere, eskubideak bermatzen dituen bitarteko hori normaltasunez eskuratzeko ez da errealitate bat pertsona gorrentzat.

- Askotan, senitartekoak edo lagunak erabiltzen dituzte, eta zeinu-hizkuntzadun pertsona gorrek ohartu egiten dira bitarteko horiek erabiltzea badituela eragozpenak, adibidez, norbere bizitzako alderdiak ezagun egitea, beste egoera batean partekatuko ez lituzketen arren. Kasu askotan, osasuneko profesionalak erabiltzen dute familiaren bidea, dela pertsonari galdetu gabe, dela pertsona hori ados egon gabe.
- Bestetik, familiaren bidea erabiltzeak, askotan, pazientearen eskubideak baztertzea esan nahi du. Senitartekoak pertsona gorrari helarazten dion informazioa, gehienetan, urria izaten da eta, batzuetan, senitartekoak berak hartzen ditu erabakiak.
- Halaber, interprete profesionalik ez zegoen garaietan, seme-alaba txikiak erabili ohi ziren horretarako. Egun, tarteka erabiltzen diren arren, ez da ohiko komunikazio-bitartekoa.
- Bestetik, pertsona gorrek osasunari buruz ematen duen informazio zehatz urria dela eta, informazio-prozesua luzeagoa egiten da, azaldutako osasun-prozesuari buruzko informazio gehiago eman behar izatean. Ondorioz, arretadiborak luzatu egiten dira, eta informazio gehigarria behar izaten da gauzak argitzeko.

IRAKURKETAREN OINARRIZKO PROZESUAK IKASTEN DITUZTEN ARREN, ZAILTASUN LARRIAK DITUZTE EGUNGO GIZARTE-BEHARRIZANEKIN BAT ETORRIZ ALFABETATZEKO.

1. OMEren Funtzionamenduaren, Desgaitasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Sailkapena lanaren arabera (2001), **oztopoak izango dira pertsona baten inguruan haren funtzionamendua mugatzen eta desgaitasuna eragiten duten faktore guztiak.**

2. 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onartzen duena.

3. Harper L.M. (1999) Health care delivery and deaf people: practice, problems, and recommendations for change. Journal of Deaf Studies and Deaf Education, 4, 2, 73-110.

3.- INFORMAZIOA ESKURATZEKO OZTOPOAK:

- Idatzizko formatuan eskainitako informazioa ez da irisgarria pertsona gor askorentzat. Irisgarri egiteko, beharrezkoa da, berriz ere, pertsona gorren ezaugarriak buruzko informazioa edukitzea, gai horren inguruan desberdintasun handiak baitaude.
- **Osasun-gaiei buruzko ezagutza-faltak pertsona gorraren osasunean eragin dezake.**

Egoera hori pertsonaren heziketa mailaren arabera gerta daiteke. Osasunaren gaineko eraginak zerikusia du, besteak beste, gaitz jakin batzuk eragozteko hartu behar diren prebentzio-neurriak ez ezagutzearekin, adibidez.

- **Informazioa eskuratzeko zailtasun hori dela eta, gerta daiteke pertsona gorak bere eskubideak, erantzukizunak, eta bere eskubideak arautzen dituzten askotariko legediak ez ezagutzea, adibidez, zeinu-hizkuntzako interpretazio-zerbitzu bat izateko duen eskubidea.**

- Erizaintzan batez ere egiten den **“Osasunerako Heziketa”** delakoari lotutako lanean (osasun-ohiturak, diabetesa, elikadura, bihotz-hodietako gaitzak, umea edukitzeko prestatzea, etab.), komunikazioa oinarritzko elementua da hura garatzeko. Ondorioz, pertsona gor ugari osasun-zerbitzuetara joaten dira ez prebentziorako, baizik eta gaitz bat dutenean bakarrik.

- **Beste adibide bat osasun mentalari buruzkoa da.** Basurtuko Ospitalean “Gorreria eta Osasun Mentala” zerbitzu berezi bat baduten arren, zehazki zeinu-hizkuntza eta pertsona gorak ezagutzen dituzten osasun mentaleko profesionalak falta dira. Interbentzio-arlo horretan, komunikazioa ezin bestekoa da diagnostiko eta tratamendurako.

4.- OSASUNEKO PROFESIONALEN EZAGUTZEK ETA JARREREK ERAGINDAKO OZTOPOAK.

- Osasuneko profesionalek ezagutza gutxi izaten dituzte pertsona gorrei, gorrerari eta pertsona horien eguneroko bizitzarako hark dituen ondorioei buruz. Hori dela eta, ez dute ezagutzen pertsona gorak nola komunikatzen diren, eta pentsa dezakete, erratuta, haiekin eraginkortasunez komunika daitezkeela oharren bidez eta ezpainak irakurriz, beste komunikazio-bitartekoren premiarik gabe.
- Osasuneko profesional batzuek dituzten jarrerak atsekabea eta amorrua eragiten diete pertsona gorrei. Adibidez, jarrera paternalistak edo umeak balira bezala hitz egitea, edo pertsona gorrek gaitasun intelektual mugatua balute bezala jotzen dutenean.

5.- EGOKITZAPENERAKO / IRISGARRITASUNERAKO OZTOPOAK:

- Ikusizkoak ez diren abisu-sistemak. Ikusizko abisu-sistemak gero eta gehiago dauden arren, artean ere abisu akustikoa besterik ez dago itxarongela askotan kontsultategietara sartzeko.
- Gero eta joera handiagoa dago webguneen bidez hitzorduak eskatu eta aldatzeko, eta horrek erraztu egiten die lana pertsona gorrei. Aldiz, hitzordua telefono bidez jartzeko sistemak neke gehiago ematen dizkie pertsona gorrei eta, ondorioz, askotan, pertsona entzuleen mende jarri behar dira hitzordua jartzeko.

OSASUN-ZERBITZUAK EZ DU BERE INTERPRETAZIO-ZERBITZURIK, ETA ELKARTEEN SAREAK EDO BESTE GOBERNU-SAIL BATZUEK (GIZARTE-ZERBITZUEK, BATEZ ERE) HARTU BEHAR IZATEN DUTE ZERBITZU HORIEN ARDURA, HAIEN ESKUMENEKOAK EZ DIRENEAN ERE.

Arartekoak, 2017ko “EAEko ospitaleek ezgaituentzat duten irisgarritasunaren diagnostikoa” txostenean, Ondorioak VI. atalean, “Irisgarritasun-baldintzak” gaiari helduz, laugarren zatian, ondorengo adierazten du: “Nabarmendu egin behar da, beste eremu batzuetan bezalaxe, osasun-instalazioetan funtsean ez dagoela inolako neurririk ikusmen- edo entzumen-desgaitasuna duten pertsonak informaziora berdintasun-baldintzetan iristea bermatzeko”.

11. atalean, berriz, ondorengo dio: “Ikusmen- eta entzumen-desgaitasuna dutenentzako komunikazioa: Oro har, zeinu-hizkuntzako interpreteak falta dira, eta ez dago entzumen-desgaitasuna duten pertsonekin komunikatzeko neurri teknikorik”.

ENPLEGUA / PRESTAKUNTZA

Lanpostu bat lortzeko orduan, etorkizuneko langileek dituzten desberdintasunak direla eta, beharrezkoa da gehiago edo gutxiago, lanpostuaren eta ekar ditzakeen arriskuen hasierako ebaluazio bat egitea.

Ebaluazio horiek are beharrezkoagoak dira dibertsitate funtzionaleko (desgaitasunak dituzten) **gizataldeetan**; izan ere, biztanleriaren bazterretan kokatzen direnez, eragozpen gehiago ager daitezke batez besteko biztanleriarentzat diseinatutako lanpostu bateko zereginak egiteko orduan.

Ergonomia mendetik gora darama lana gizakiari egokitzen saiatzen. Diziplinarteko zientzia horrek zeregin, lan, produktu, erakunde, ingurune eta sistemen plangintza, sorkuntza eta ebaluazioa aztertzen ditu, pertsonen beharrian, gaitasun eta mugapenekin bateragarri egiteko.

Beraz, komeni da EZ ahaztea dibertsitate funtzionala duten pertsonak dituzten lanpostuak egokitzeko printzipioak eta metodologia ez direla interbentzio arruntetan egiten direnetatik desberdinak. **Hori bai, arlo honetako interbentzioak banaka egin behar dira neurri handiagoan, langilea-zeregina-lanpostua erlazioak aztertuz.** Horrek lan-eskaeren azterketa eta postua beteko duen langilearen gaitasun funtzionalaren balorazioa esan nahi du.

Lanpostuetako Irisgarritasun Unibertsalaren helburu nagusia da lan-inguruneak eta produkzio-bitarteko teknologikoak langile izan daitezkeenekin alaitz hobekien ezkontzea.

ASKOTARIKO ESPERIENTZIEK
ERAKUTSI DUTENEZ, LANPOSTUAK
HASIERATIK DISEINU UNIBERTSALEKO
IRIZPIDE OROKORRETAN OINARRITUZ
SORTUKO BALIRA, LANGILE GUZTIEN
IRISGARritasuna eta bidezko
ERABILERA-ERRAZtasuna hobetuko
LIRATEKE.
GAINERA, ASKOZ ERRAZAGOA IZANGO
LITZATEKE MUGAPEN JAKIN BAT DUEN
LANGILE BATEK BEHARKO LUKEEN
EDOZEIN EGOKITZAPEN PERTSONAL
EZARTZEA.

Dibertsitate funtzionala duen pertsona baten lanpostua ARRAZOIZ EGOKITZEKO (4), hainbat pauso eman behar dira. Era horretan, langilearen eta lanpostuko beste osagaien arteko bateraezintasunak identifikatu eta zuzendu ahal izango dira. Ondorengo puntuak hartu behar dira kontuan:

* Enpleguaren aurreko prestakuntza (lanbide-heziketa, orientazioa, praktikak...).

* Aukeraketa-prozesuak (sarrera-probak egokitzea)

* Lan-jarduna (lanpostua egokitzea).

* Laneko eta laguntza-produktuen erabilerari buruzko prestakuntza (prestakuntza-ekintzak egokitzea).

* Sustapen profesionala.

Pertsona gorra laneratzeko zailtasunak

— Prestakuntzarako irisgarritasuna

— Sustapenerako zailtasunak

— Kalitatea ezartzeko zailtasunak

— Ondorengo entzumen-egoeretako irisgarritasun-zailtasunak: megafonia bidezko abisuak, sirenak, ahozko mezuak, zaratak...

— Jendarteko elkarrekintza jakin batzuk kudeatzeko zailtasunak (lankidetzak, jendaurrean...)

Lan-irisgarritasuna hobetzen laguntzen duten laguntza-produktu batzuk:

Entzumenari buruzko eskaera ohikoenak aurrez aurreko, telefono bidezko edo megafonia bidezko elkarriketetan giza ahotsa entzuteko gaitasunari buruzkoak izaten dira. Kontuan hartu behar da, halaber, kanpo-faktoreek, adibidez, lantokiko zaratek, entzumen-seinalearekiko distantziak edo erreberberazioak, zaildu egiten dutela entzutea. Lehendabiziko interbentzioa beti izango da aipatutako arazoak kendu edo arintzen saiatzea.

Entzuteko desgaitasun arinetik larrira duten langileek audifono bat edo/eta kokleako inplante bat erabili ohi dute.

Pertsona eta postua bat etortzeko produktu horiek erabiltzea nahikoa ez bada, soinu-igorpenerako sistemetara jo dezakegu.

— 4. (1) **Europar Batasuneko Kontseiluak** onartuta argitaratutako 2000/78/EE Zuzentaraua aurrerapen oso handia da desgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasunaren aldeko borrokan; izan ere, herritar guztiek diskriminazioirik gabeko tratua jasotzeko duten eskubideaz gain, berdintasuna berrezartzeko "arrazoizko egokitzapena" kontzeptua sartu zuen.

Tratu-berdintasunaren printzipio juridikoa da egoera berean daudenean pertsona bati beste batekin alderatuta tratua berdina ematea, eta egoera desberdinean daudenean, berriz, era desberdinean tratatzea.

Europar Batasuneko Kontseiluaren 2000/78/EE Zuzentarautik aurrera, enplegu eta lan-jarduneko tratua-berdintasuna ezin da ulertu arrazoizko egokitzapenik gabe.

Soinua igortzeko sistemak entzuteko protesien osagarri bat dira; haien bidez, igorpenaren iturburuko soinu nagusitzen da inguruneke zarataren gainean. Entzun nahi dugun seinalea hurbiltzen diguten sistemak dira, bukle magnetikoa eta FM ekiak bezala.

Telefono bidezko komunikazio-zereginetarako soinu-seinaleak jasotzea errazten duten **telefonoak** existitzen dira, ondorengo prestazioak edukiz:

- Txirrin maila eta deiaren argi-seinalea doitzen dute.
- Aurikularreko bolumena / tonu grabe eta akutuen irabazia doitzen dute.
- Indukzio-haril bidez areagotu egiten dute anplifikazioa, audifonoko T posizioan telefonoa erabiltzeko modua emanez.

- Esku libretan bolumena doitzen dute.

Ordenagailuak lanpostuetan orokortu egin direnez, neurri handi batean, **posta elektronikoek** telefonoa ordezkatu dute; gainera, bideokonferentzia ere erabil daiteke.

Telefono mugikor bidezko komunikazioa ezartzeko, bukle magnetiko bat erabil dezakegu; era horretan, interferentziak eta traba egiten duten zaratak kenduko dizkiegu audifonoak erabiltzen dituzten pertsonen, edo bestela, testu-mezuak erabil ditzakegu. Gainera, Internet bidezko konexioa aukeratzen badugu, posta elektronikoak berehala jaso ahal izango ditugu.

Lokalak eta lan-bulegoak egokitzeko beste produktu mota batzuk **soinu-ohartarazleak** dira, ateko txirrinetik, atezain automatikotik, telefonotik eta abarretatik datorren soinua ikusizko edo ikusizko-dardara bidezko informazio, edo misto,

bihurtzen dutenak. Osoenek alde aurretik zehaztu ditugun soinu-alarma jakin batzuk aktibatu direla ohartarazten dute hargailu bateko dardararen bidez.

Jatorriaren identifikazioa hargailuaren argi-seinaleen bidez egiten da.

Bukatzeko, adieraz dezagun pertsona gor askori zeinu-hizkuntzak komunikazio-sistema eraginkor bat hornitzen diela, eta haien lehen hizkuntza da. Lan-elkarriketan, laneko prestaketa prozesuan, prestakuntzan edo langileak behar izan ditzakeen beste kasuetan, interprete bat egotea arrazoizko egokitzapentzat hartu behar da.

GIZARTE-ZERBITZUAK

Ulertzen dugu Gizarte Zerbitzuek pertsonen bizi-kalitatea hobetzen dutela, segurtasuna ematen dutela, autonomia pertsonala eta gizarte-kohesioa; gainera, bizi-ohitura osasuntsuak eta zahartze aktiboa izaten laguntzen dute. Beraz, arreta berezia jarri behar diogu hura biztanleria osoarentzat inklusiokoa den arlo bat izan dadin.

Osasun-, hezkuntza-, enplegu-, etxebizitza- eta gizarte-zerbitzuen politikek osatzen dute herritar guztiek bizitzako askotariko etapetan bidelagun duten ongizate-egoera.

Pertsona gorra edo entzuteko desgaitasuna duen pertsona bere kabuz parte hartu eta erabakiak hartzeko gai izan dadin, sistema zerbitzuarekin harremana ezartzen den une beretik izan behar da irigarria. Horregatik, une honetan, dagokion osasun-zerbitzuarekin hitzordua jartzeko, Internet bali

daiteke, baina ez gizarte-zerbitzuekin.

Halaber, zeinu-hizkuntzako interpretearen (ZHLren) figura erabiltzaile gorraren bidez erabiltzen da. Sistemak berak ez du protokolorik hura eskatzeko gizarte-zerbitzuak eratzten dituzten (ondoren zehazten diren) askotariko zerbitzuetan:

- Herritar guztiei zuzendutako informazio-, balorazio-, diagnostiko- eta orientazio-zerbitzuak.
- Mendekotasunean laguntzeko zerbitzuak: etxeko laguntza-zerbitzuak, teleasistentzia.
- Baztertuei laguntzeko zerbitzuak: gizarte- eta hezkuntza-interbentzioa, gaueko harrera, alojamendua, harrera-zentroak, egoitza-zentroak,...

- LARRIALDIAK: harrerako pisuak, tratu txarrak jasotako emakumeak, gizarte-larrialdiko zerbitzua, haurren tratu txarrak,...

- Genero-indarkeriarako laguntza-zerbitzuak.

- Gaixo mentalentzako laguntza-zerbitzuak.

- Familia-inguruneentzako laguntza-zerbitzuak.

Herritarren eskueran dauden baliabide GUZTIEK bete beharko lituzkete entzuteko desgaitasuna duten pertsonen erabiltzeko behar dituzten laguntzak eta betekizunak, agiri honetan aipatutako bitartekoen bidez; era horretan, Guztiontzako Diseinuaren ikuspegia errespetatzen da.

JUSTIZIA

Justizia Ministerioak eta Pertsona Gorren Estatuko

Konfederazioak (CNSEK) lankidetzat hitzarmen bat sinatu dute Justizia Administrazioaren arloan **pertsona gorrek** irisgarritasun-baldintzetan hobe parte hartzeari begira. Horretarako, bi erakundeak lankidetzan arituko dira ekintza bateratuak eginez, gizatalde honen babesa hobetzeko, beren eskubideak erabiltzea eta babestea bultzatuz, eta Justizia Ministerioaren eskumenean dauden babes-mekanismoak hobetuz.

Zehazkiago, gida-dokumentu bat egitea aurreikusi da. Hura bideratuko da pertsona gorren errealitateaz eta Justiziaren aurrean duten beharrezko informatu, aholkularitza eman eta sentsibilizatzen.

Halaber, Justizia Administrazioako funtzionarioek eta profesionalek prestakuntza jasoko dute epaiketa-prozesuetan sartuta dabiltzan pertsona gorrei arreta egokia eta begirune-tratua emateko eta, hartara, benetako babes judiziala haiei bermatzeko.

Herritarrek Justiziaren aurrean dituzten Eskubideen Gutunak eskubide horiek aitortzen dizkie pertsona desgaituei justiziarikiko harremanean:

- Edozein zentzumen-, gorputz- edo buru-degaitasunen eraginpeko herritarrek betetasunez erabili ahal izango dituzte Gutun horrek eta prozesu-legeek aitortutako eskubideak.
- Organo judizialaren aurrera agertu beharko da bakarrik Legearen arabera hertsiki beharrezkoa denean.
- Epaitegi-eraikinek sarbidea eta bertako egonaldia errazten duten zerbitzu osagarriez hornituta behar dute.
- Herritar gorrek, mutuek eta ikusmen urrikoek zein itsuek eskubide osoa dute zeinu-hizkuntzako interprete bat edo

teknologia-bitartekoak erabiltzeko, era horretan eskatutako informazioa ulertuz eskuratzeko, komunikazio-ekintzak behar bezala egiteko eta parte hartzen duten beste prozesu-jardunetan aritzeko.

- Bitarteko teknikoak erabilera sustatuko da, adibidez, bideotestuak, testu-telefonoak, dokumentuak brailera itzultzeko sistema, soinu-grabazioak edo antzekoak.

- Arreta bereziz egiaztatuko da komunikazio-ekintza hartzaileari eraginkorki helarazi zaiola eta, dagokionean, ekintzaren edukia ahots gora irakurriko da.

Zeinu-hizkuntza erabiltzen duten pertsonentzat, epaitegiak berak jartzen du interpretaziorako bitartekoa.

Hala, Justizia edo Barne Ministerio edo Sailaren mendeko zerbitzu askok, adibidez, espetxeek edo askotariko polizia-zerbitzuek, ez dituzte interpretazio-zerbitzuak protokoloz erabiltzen. Egoera batzuetan, pertsona gor presoek edo atxilotuek zailtasun larriak dituzte komunikatzeko eta haien egoera ezagutzeko.

ETXEBIZITZA

Etxebizitza irisgarri batek autonomia, segurtasuna, duintasuna, erosotasuna eta denbora-aurrezpena bermatzen ditu, ez bakarrik bertan bizi diren pertsonena, baizik eta hura bisitatzen dutenena.

Oro har, etxebizitzak espazio irekiak izan behar ditu, edo/eta gainazal gardenak, komunikazioa errazteko.

Argi ohartarazle horiek eduki behar dira, informazioa hala etxebizitza-kanpoaldetik nola -barrualdetik eskuratu ahal izateko:

* Bideo-atezainak, atea irekitzeko ikusizko elementuz hornituak.

* Sarrerako atea.

* Gas- eta ke-detektoreak.

* Ume-negarra.

* Etab.

Gailu horiek izan daitezke gailu eramangarriak edo instalazio finkoak, profesional espezializatuek egindakoak.

GARRAIOA

Pertsona bat gizartean osoki parte hartzeko, besteak beste, eskueran diren **garraiobideak aske, eroso eta seguru erabili behar dira.**

Egunero egin behar ditugun jarduera askotan, direla profesionalak, direla aisialdikoak, direla gizarte-partaidetzakoak edo beste, lekualdaketa nahiko luzeak egin behar ditugu eta, ondorioz, **beharrezkoa izaten da garraiobideren bat erabili behar izatea**, denboraren edo ahaleginaren kostua murrizteko. **Beraz, garraiobide publiko edo pribatuarentzako sarbidea izatea bereziki garrantzitsua da** pertsona guztiek beren jarduera pertsonala edo profesionala bete dezaten.

AUTOZ

- Martxa-aldaketen berri ematen duten bira-kontagailuak.
- Ateak gaizki itxita, argiak piztuta eta abar ohartarazten duten argi-seinaleak.

HIRI-AUTOBUSEZ

- Ibilbide, geltoki eta abarrei buruzko informazioa ematen duten argi- edo ikusizko seinaleak behar bezala kokatzea eta funtzionatzea.

AUTOBUS-GELTOKIAN

- Larrialdiko argi-alarma
- Autobusen irteerak eta etorrerak zerrendatzen dituzten ikusizko informazio-pantailak.
- Megafoniaz igorritako mezuak testu idatziz jartzea, ahots-errekonozimendurako sistemen bitartez.
- Entzuteko protesiak (audifonoak eta kokleak inplanteak)

dituzten erabiltzaileentzako bukle magnetikoak, bidaiarientzako informazio-zerbitzuetan edo txartelak saltzeko leihatilatan.

TAXI-ZERBITZUETAN

- Zerbitzu eskatzeko: Internet-orri erabilerraza, informatika-aplikazioa, etab.
- Ibilgailu barnean: zuzeneko begi-komunikazioa eragotziko duen itxiturarik gabe, bolumen-anplifikadoreduna; pertsona gorrei gidariaren aldamenean esertzen utzi beharko litzaieke.

TRENBIDE-GARRAIOAN

• Geltokietan

- Bucle magnetikoa.
- Bideo-interpretazioa.
- Larrialdiko argi-alarma
- Trenen irteerak eta etorrerak zerrendatzen dituzten ikusizko informazio-pantailak.
- Megafoniaz igorritako mezuak testu idatziz jartzea, ahots-errekonozimendurako sistemen bitartez.

• Trenean

- Ibilbide, geltoki eta abarrei buruzko informazioa ematen duten argi- edo ikusizko seinaleak behar bezala kokatzea eta funtzionatzea.
- Pelikulak eta gainerako telesaioak azpigituluz ematea.

METROAN

• Geltokietan

- Bideo-konferentzia ekipoak dituzten igogailuak

- Larrialdiko argi-abisuak.
- Etorrerak, irteerak eta abarrei buruzko informazio-panelak.
- Informazio-puntuetako bukle magnetikoa.

• Metroan

- Geltokien eta linea-aldaketen ikusizko informazio argi eta egokia.
- Larrialdiko argi-seinaleak.

TRANBIAN

Geltokietan, seinaleztapen egokia eta informazio erabilerraza izan beharko lukete. **Tartean izan behar dute informazioa tranbia-sare osoko irigarritasun, ordutegi, tasa eta tranbiek izandako gorabeherari buruz, askotariko formatuetan emana: ikusizkoa, soinuak, etab.**

Tranbiek hor daudela **ohartarazi behar diete oinezkoiei**, hala seinale akustikoz nola **argi-keinuak eginez**, gauez zein egunez erraz detektatzeko moduan.

AIRE ETA ITSAS GARRAIOAN

• Aireportu eta itsas portuetan

- Irteera, etorrera eta abarren ikusizko informazio-panelak.
- Larrialdiko argi-seinaleak.
- Informazio-puntuetako bukle magnetikoak.
- Bideo-konferentzia bidezko zeinu-hizkuntzako interpretea.

• Hegazkinean eta barkuetan

- Larrialdiko argi-seinaleak.
- Bidaiarientzako interesa duen idatzizko informazio- eta azpigitulazio-sistema, pelikulak, etab.

KULTURA

Herrialdeek **kultura-bizitzan eta denbora librean** parte hartzea bultzatu behar dute, telebista-programak, pelikulak, antzerki- eta kultura-materialak formatu irisgarrietan ematen direla segurtatuz, antzokiak, museoak, zinemak eta telebista irisgarriak eginez, desgaitasunen bat duten pertsonen beren sormena garatu eta erabiltzeko aukera dutela bermatuz, ez bakarrik beren buruaren mesedetan, baizik eta gizartea aberastearren.

MUSEOAK

Museoetako edukiak eskuratzeko, bermatu behar da herritarren bisita eraginkorra eta gogobetegarria izatea, honela:

- Informazio eta heziketarako bideoen bidez.
- Idatzizko informazio-foileto eta -panelen bidez.
- Zeinu-hizkuntzako interpreteen bidez.
- Bukle magnetikoen bidez.
- Bideo-giden bidez.

ZINEMAK, ANTZOKIAK

Zinema eta antzerkia erabiltzaile kopuru handienetakoak dituzten bi arte-adierazpide dira. Hala ere, entzuteko desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasun-arazo handiak aurkitu izan dituzte beti, erakusten diren lanek azpitolurik ez dutelako edo ez dutelako zeinu-hizkuntzarako itzulpenik. Komunikazioa segurtatzen duten elementuak ondorengoak dira:

- **Zinemetan**, ondorengoak beharko lirateke:

— **Bukle magnetikoa**, entzumen-protesien (audifono eta kokleako inplanteen) erabiltzaileen entzumen-seinalea hobetzeko.

— Azpitoluak.

— 9 edo 10. ilarako erdialdeko **eserlekuak erresebatzea**, erreproduktzioarako ikusizko angelua eta azpitoluen irakurketa errazten baitute.

• **Antzokietan**, ondorengoak beharko lirateke:

— Antzezlaneko elkarriketak itzultzeko **zeinu-hizkuntzako interpretazio-zerbitzua** izatea, edo **estenotipia-sistema** bat, pantaila handian testuak proiektatzeko. Hainbat modu daude azpitoluak erabiltzaileek eskuratzeko. Guztiek eskatzen dute teknologia eta ekipo bereziak erabiltzea.

Antzerkian, **erabiltzaileek azpitolatzeko nahiago duten era** “modu irekia” delakoa da; modalitate horretan, azpitoluak eszenategiko alde batean azaltzen dira, eta ikusle guztiek ikus ditzakete.

Horretarako, proiektzio-pantaila bat edo LED-pantaila bat balia daiteke; lehendabizikoak sistemari konektatutako proiektore bat behar du, hortik azpitoluko gidoiaren azpitoluak igortzeko; proiektoreak behar duen potentzia aldakorra izango da, antzokian duen kokapenaren eta proiektzio-pantailara dagoen distantziaren arabera. LED-pantaila zuzenean konekta dakioke ordenagailuari edo gidioia dagoen sistemari.

Gainera, **bukle magnetikoko sistema** bat ere instalatu beharko litzateke, audifono eta kokleako inplanteen erabiltzaileentzat.

Komeniko litzateke aretoko **lehendabiziko iladak erresebatzea**; era horretan, eszenara, zeinu-hizkuntzako interpretera eta azpitoluetara doan ikusizko angelua errazten da.

TELEBISTA

XXI. mendean, komunikazio eta informazioaren aroan, ikus-entzunezko edukiak askotariko sareetan eta bitartekoetan



barrena zabaltzen dira, modu anitzean eta dibertsoan, era guztietako gailuetan eta komunikazio-sistemetan, bideo zein audio bidezko informazioa jarri herritarren eskueran.

Testuinguru horretan, telebista gizarteari begira dagoen komunikabide bat da, gehienez, doakoa eta herritar guztiei zabaldua. Aldiz, entzuteko desgaitasuna duten pertsonak ezin dute ikus-entzunezko informazioa, aisialdia eta kultura aukera-berdintasunez disfrutatu, non eta ez zaien zerbitzu bat eskaintzen soinuaren oinarritutako hori **azpigituluaren edo zeinu-hizkuntzako interpretazio bidez** jasotzeko.

TD Tari eta telebista-erakundeek dagokionez, kontuan hartu behar dire irigarritasun-zerbitzuak ondorengoak dira: azpigituluak, zeinu-hizkuntza, audiodeskribapena, eta gailuetarako irigarritasuna. Ondoren, horietako bakoitza zer den ikusiko dugu laburki:

Pertsona gorrentzako eta entzuteko desgaitasuna dutenentzako **azpigituluak** komunikaziorako laguntza-zerbitzu bat dira; testuak eta grafikoak baliatuz, pantailan erakusten dituzte hitz eginak eta ikus-entzunezko edukietan adierazten den soinu-informazioa. Osatzen duten programako soinu-bandako hizkuntza berean egiten dira, eta Espainiako Estatuan UNE 153010: 2012 arauak ezartzen dituen irizpideak jarraitzen dira. Baliagarriak dira desgaitasuna duten eta entzumen-galera arina duten pertsonentzat, baina baita ingurune zaratsuan telebista ikusten dutenentzat edo hizkuntzaren ezagutza hobetu nahi dutenentzat.

153010:2012 arauak ezartzen dituen irizpideei lotuz, entzuteko desgaitasuna duten pertsonentzako azpigituluek badituzte hizkuntza arteko azpigituluetatik (beste hizkuntzetako lanen edukiak itzultzeko erabilitakoetatik) bereizten dituzten ezaugarri batzuk.

Adierazgarrienetako batzuk ondorengoak dira:

- Pertsona bakoitzerako kolore edo identifikazio-etiketa desberdinak erabiltzea.

- Hitz egindako mezuen azpigituluaren kokapena: pantailaren behealdean eta erdiratuta, salbu eta informazio garrantzitsua ezkatzen badute.

- Gehienez ere 2 lerro (3 zuzeneko azpigituluaren kasuan).

- Lerroko karaktereen kopurua ez da izan behar 37 baino gehiago, segurtasun-tarteak errespetatzeko.

- Tipografia irakurteraza izan behar da tamaina, pantaila-bereizmen, argiztapen, kontraste eta abarren aldetik.

- Azpigituluak erakusteko abiadura ezin da izan 18 karaktere segundoko baino lasterragoa. Azpigituluaren sarrerak eta irteerak ezpainen mugimenduekin egon behar dira sinkronizatuta.

Horiek pantailako goiko eskuinaldean erakutsi behar dira parentesi artean, lehendabiziko letra maiuskulaz duela.

Gainera, adierazi behar dira testuinguru-informazioa (adibidez, “pertsonaia batek totala hitz egiten du, garrasi egiten, edo marmarka hitz egiten du, edo zalantzan dela ematen du aditzera...”) eta off ahotsak, maiuskulaz eta parentesi artean adieraziko direnak, haiei dagozkien testuaren aurretik.

Helburu horretarako, ikono emozionalak (emotikonoak) erabil daitezke, puntuazio-ikurren eta letren konbinazioak osatuak. Era horretan, espazio txikiagoan eskaintzen da pertsonaren lokuzioa gertatzen den egoera eta aldartea.

Azpigituluak literalak izan beharko lirake, interpretaziorik egin gabe.

Entzuteko desgaitasuna duten pertsonen ikus-entzunezko bitartekoak eskueran jartzeko beste zerbitzu bat **zeinu-hizkuntzara interpretatzea** da. Zeinu-hizkuntza da zeinu-hizkuntzadun pertsona gorrek eta gor-itsuek erabiltzen duten hizkuntza-komunikazio sistema bat. Ez dago zeinu-hizkuntza unibertsal bat; aldiz, aldatu egiten da hizkuntza-komunitate

erabiltzailearen arabera. Ikus-entzunezko sistemetan erabiltzeko, interpretea eszenan edo pantailan jar daitezke, edo pantailaren gainean flotatzen duen leiho batean, edo zeinu-hizkuntzako interpretea eszenaratzean sartu.

Telebista digitalarekin eta kanalak gehitzearekin batera, gero eta zailagoa da jakitea zein telebista eskaintzen diren, eta zer ordutan. Nabigazioko oinarritako aplikazioen bidez, kanaletan gora eta behera ibiltzeko aukera dagoen arren, programazioko gida elektronikoak (EPG5) beharizan bat bihurtu dira eta, argi dago, irigarriak izan behar dira, eta irigarritasun-zerbitzuei buruzko informazioa izan behar dute.

TURISMOA ETA AISIALDIA

Aisialdia oso fenomeno ohikoa eta garrantzitsua da egungo gizartearen, pertsonen garapena bultzatzen du, eta bizi-kalitatearen zein ongizatearen adierazlea da.

Aisialdia errazten duen ingurune irigarri bat da pertsona guztiei tokia ematen diena eta pertsonak harremanean jartzen dituen; bertan, ekipamenduek, zerbitzuek eta aisialdi-programek herritar guztientzako ezaugarri egokiak dituzte.

Irigarritasun-faktoreak kontuan hartu behar dira, hala turismoaren arloan nola aisialdian.

HOTELAK / ATERPETXAK

- Erreserbetarako aplikazio mugikor eta web-orri irigarriak.
- Bukle magnetikoak.
- Hoteleko langileek zeinu-hizkuntzari buruzko ezagutzak izatea.
- Hoteleko zerbitzuei buruzko idatzizko eta ikusizko informazioa.
- Larrialdiko argi-seinaleak.

PLAZAK, LORATEGIAK, NATUR PARKEAK

Informazio-panelak daudenean, “guztiontzako diseinua”ren ikuspegitik sortu beharko lirateke, irakurketa errazeko elementuak, piktogramak edo zeinu-hizkuntzako bideoak erabiliz.

MAHAI-JOKOAK

Instrukzioak esaldi laburrak erabiliz sinplifikatuko dira. Azpтитuluak edo zeinu-hizkuntza dituen liburu bat sar daiteke, instrukzioak eta jokatzeko modua azaltzeko.

JOSTAILUAK

Soinua duten jostailuek bolumen-kontrola eta entzungailuentzako aukerazko irteera izan behar dute, **haurren entzumen-hondarrera egokitze**ko.

Soinu-efektuak baldin baditu, haurrek antzeman ditzaketen beste efektu batzuk izango ditu (argiak, irudiak, dardarak, etab.).

Akoplamenturik ez gertatzeko, beharrezkoa da espezialista bati galdetzea, berak haurrak erabiltzen duen audifono motaren arabera aukeratzeko lagundu diezagun.

Jostailua aldatu behar da, entzungailuak eta soinuak jostailuko ohiko kanaletik aldi berean erabili ahal izateko, **jokoa entzuteko desgaitasuna dutenek eta ez dutenek** partekatzeko aukera izan dezaten.

Gailu elektronikoak **jarri behar dira**, soinu-efektuak haurrek hauteman ditzaketen beste efektu batzuk bihurtzeko, soinu-efektuak egiten dituen jostailuaren **dardarak areagotzeko** edo soinu-efektuak ozertzeko. **Ahozko mezuak idatzizko mezuetan emango dira**.

ERAIKIN PUBLIKO ETA PRIBATUAK

Informazioa jaso edo aholkularitza eskuratu, dokumentuak kudeatu, lan egin, ikasi edo disfrutatzeko joaten garen eraikinak dira. Beraz, edozein pertsona izan behar du zailtasunik gabe hurbildu, sartu edo bertan moldatzeko aukera, beren gorputz- eta zentzumen-egoera edo egoera intelektuala edozein dela ere.

SEINALEAK ETA INFORMAZIO-TAULAK

Barrualdeak argi eta garbi hautemateko modukoak izan behar dira edozein pertsonarentzat. Argiztapena, koloreak eta pareten, lurzorua eta ateen arteko kontrastea ebaluatu behar da. **Beharrezkoa izan daiteke** bilkura-, elkarrizketa-, hitzaldi-**geletan eta atarietan entzumen-protesiak** (audifonoak eta kokleako inplantak) **dituzten erabiltzaileentzako bukle magnetikoko eta soinua areagotzeko (anplifikatzeko) sistemak** instalatzea, eta behar bezala seinalez horiek adieraztea.

“Informazioa igorri baino lehen, abisu edo instrukzio-seinale bat adieraziko da arreta erakartzeko. Erabilera publikoko eraikinek ikusizko bitartekoak izan behar dituzte larrialdiko abisuak eman ahal izateko.

BEIRAZKO ATEETAN

Segurtasunezkoak izango dira, eta bi zerrenda horizontalez nabarmenduko dira, atea alderik alde zeharkatuz eta ikusteko moduko **kontrastea edukiz**. Osoki edo zati batean gardenak diren ateak dira egokienak pertsona gorrentzat eta entzuteko desgaitasuna dutenentzat, erraztu egiten baitute ikusizko kontaktua.

ARRETA PUBLIKORAKO BULEGOETAN

Jendaurreko arreta ematen duten pertsonen **zeinu-hizkuntzako** oinarritzko **ezagutza** edo **zeinu-hizkuntzako interprete bat** izan behar dute, **dela aurrez aurre, dela bideokonferentzia-sistemaz, baita bukle magnetikoko sistema eramangarri bat ere**.

ERAKUSMAHAJETAN

Ez da kristalezko itxiturarik egon behar, gutxiago entzuten baita, eta zailtasunak sortzen dituzte, kristaletako islegatik. **Interkomunikadore bat badago**, bukle magnetikoz hornitua behar du, eta bozgorailu arrunteko aurrekoarekin zein anplifikadorearekin konmutatua.

Argibideek edo seinale akustikoek **ikusizko seinale** baliokideak izan behar dituzte beti aldean. Egokiena izango litzateke **bideokonferentzia-sistemak** edukitzea, zeinu-hizkuntzako interprete batekin konektatzeko. **Bukle magnetikoa ere izan behar dute**, entzumen-protesien (audifono eta kokleako inplantan) erabiltzaileentzako.

ITXARONGELETAN

Ez da eskusiban megafonia erabiliko pertsonen deitzeko edo abisuak emateko; aldiz, **entzumen murriztua duten pertsonen hautemateko moduko ikusizko elementuak** izan behar dituzte aldi berean eta, gainera, pertsonen pribatutasuna bermatu. Adibide ona da, esaterako, anbulatorio batzuetan erabiltzen den zenbaki-sistema.

...

IGOGAILUAK

Ikusizko interkomunikadoreak instalatu behar dira, pertsona gorrei edo komunikaziorako mugak dituztenei informazioa helaraziko zaiela bermatzeko.

Geldierak hurrengo solairuei eta **igotzeko zein jaisteko beste mugimendu batzuei** buruzko soinu-seinalez eta **ikusizko informazioaz** adieraziko dira.

Ateetan, eragotzi behar da igogailuan dauden **pertsonak bakartuta geratzea**; beraz, bideo-atezainak instalatu ez ezik, aholkagarria izan daiteke ateei **kristalezko aldeak** edukitzea, pertsona gorrek kanpoaldearen **ikusizko kontaktua** izan dezaten.





BESTE BATZUK

INFORMATIKA ETA INTERNET

Elementu hauek erabiltzeko pertsona gorrek aurkitu ohi dituzten zailtasunak ez dira sortzen elementuon erabilera mekanikotik, baizik eta dokumentu honetan azaldu izan dugun bezala, Internet bidez egindako bilaketetan sortutako testuak ulertzetik.

Egun, ordenagailua gure eguneroko bizitzako zati da, hala lanerako nola heziketarako edo aisialdirako. Ordenagailua irisgarria/erabilerraza izateko, diseinu egokia eta haren osagai guztiak ondo aukeratu behar dira, softwarea ere tartean. Programak desgaitasunak dituzten pertsonen betekizunei lotzen ez bazaizkie, pertsona horiek ezingo dituzte erabili eta, beraz, ordenagailuek galdu egingo dute askotariko dibertsitate funtzionalak dituzten pertsonen komunikazioa eta ikasketa hobetzeko duten ahalmena.

Hauak dira kontuan hartzeko gomendio batzuk:

- Informazio irteteko formatu askotako aukerak izan behar dituzte: audioa, testua, argiak...
- Hizkera argia, sinplea eta zuzena izan behar da, erabiltzailearen ulermen mailari egokitua, anglizismorik eta informatika-hizkerarik gabe.
- Abisu-mezuak soinu-zukoak eta ikusizkoak izan behar dira, eta indarrean egon behar dira irakurleak irakurri dituela berretsi eta horiek desaktibatu arte.
- Programak eta sistema eragilea bateragarriak izan behar dira entzuteko laguntza teknikoak sartzearekin.
- Programak eta sistema eragilea bateragarriak izan behar dira ahotsa ezagutzeko programekin eta zeinu-hizkuntzako euskarriekin.

Ordenagailuaren kokapenari dagokionez, beharrezkoa da leihoetatik edo argi artifizialetik datorren islarik ez egotea, edo errezela edo pertsiana egokiak jartzea eta argien norabidea doitzeta. Komeniko litzateke arreta desbideratu edo entzumena zailtzen duten ingurunezko zaratak kentzea.

Ordenagailuari dagokionez, modua eman behar du soinuaren bolumena kontrol fisiko batez edo software bidez erregulatzeko. Soinu-mezu garrantzitsuak ikusiz ere adierazi behar dira. Teklek ikusizko zein soinu-zuko informazioa adierazi behar dute.

LEGEDIA



Pertsona Desgaituen Eskubideei buruzko
KONBENTZIOA

EUROPAKO ERKIDEGOA ERATZEKO
TRATATUKO 13. ARTIKULUA

ESPAINIAKO KONSTITUZIOA

EAEko autonomia-estatutua

12/2008 LEGEA, abenduaren 5koa, Gizarte
Zerbitzuei buruzkoa (EAE)

51/2003 LEGEA, abenduaren 2koa,
Ezintasuna duten Pertsonen Aukera
Berdintasunari eta Irisgarritasunari buruzkoa

20/1997 LEGEA, abenduaren 4koa,
Irisgarritasuna Sustatzekoa (EAE)

Urriaren 23ko 27/2007 LEGEA, Espainiako
zeinuen hizkuntzak aintzat hartzen
dituena eta gorren, entzumen-urritasunen
bat dutenen eta itsu-gorren ahozko
komunikazioari laguntzeko baliabideak
arautzen dituen.

Bibliografia: Espínola, A. (2015): Accesibilidad
auditiva. Pautas básicas para aplicar en los entornos.
Granada: La Ciudad Accesible.



Argitaratzailea: **FEVAPAS**
Diseinua eta maketazioa: **Diagonal 360°**
Irudiak: 'CC BY-3.0-ES 2012/EJ-GV/Irekia-Gobierno Vasco/
Mikel Arrazola'
Imprimatzea: **Gráficas Irudi**
Lege-gordailua: **VI 798-2019**

INFO
www.fevapas.org
info@fevapas.org
945 287392

Calle Aragón Nº 11-Bajo
01003 Vitoria-Gasteiz (Álava)

Colaborador:

